

**NAFARROAN EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA
PREBENITZEKO ETA HAREN AURREAN JARDUTEKO
PROTOKOLOA (EGUNERATUA)**

IZENBURUA ETA URTEA: NAFARROAN EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA PREBENITZEKO ETA HAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA (EGUNERATUA) 2025

SUSTATZAILEA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA

LAGUNTZA TEKNIKOA: TANIA SORDO RUZ, HODAN SULAMAN ETA SAMARA DE LAS HERAS AGUILERA

2013KO PROTOKOLOA EBALUATZEKO ETA HURA EGUNERATZEKO PROZESUAN PARTE HARTU DUTENAK: SEXU-INDARKERIEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO ZENTROA (SIAIZ), GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI OSOKO ARRETA EMATEKO TALDEAK (GIBOAT); IRUÑEKO UDALAREN EMAKUMEENDAKO UDAL ARRETA ZERBITZUA (EUAZ), SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNEKO ZENTROAK (SUOAZ), PROSTITUZIO TESTUINGURUETAKO ETA SEXU-ESPLOTAZIORAKO EMAKUME SALEROSKETATIK BIZIRIK ATERA DIRENENTZAKO HARRERA-BALIABIDEAK, MIGRAZIO POLITIKETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA; HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA, OSASUN DEPARTAMENTUA, GUARDIA ZIBILA, POLIZIA NAZIONALA ETA FORUZAINGOA. GIZARTE-ERAKUNDEAK: MUNDUKO MEDIKUAK, FLOR DE ÁFRICA, GURUTZE GORRIA ETA CEAR. ETA MUTILAZIO GENITALETIK BIZIRIK ATERA DIREN - EMAKUME BATZUK

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: DANIELA PEÑA BONILLA

AURKIBIDEA

LEHENENGO ZATIA	P. 4
0. LABURDURAK ETA AKRONIMOAK	P. 4
1. AURKEZPENA	P. 5
2. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA	P. 8
3. PROTOKOLOAREN XEDEA, HELBURUAK ETA ESKUMEN- ETA ANTOLAKETA-ESPARRUA	P. 9
A. XEDEA	P. 9
B. HELBURUAK	P. 9
C. ESKUMEN- ETA ANTOLAKETA-ESPARRUA	P. 11
4. ESKU-HARTZEA BIDERATZEN DUTEN PRINTZIPIOAK	P. 13
BIGARREN ATALA	P. 17
5. EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA: KONTZEPTUALIZAZIOA, MOTAK, ONDORIOAK ETA GAIARI HELTZeko GAKOAK	P. 17
A. KONTZEPTUALIZAZIOA	P. 17
B. EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITAL MOTAK	P. 25
C. ONDORIOAK	P. 25
D. GAIARI HELTZeko GAKOAK	P. 29
HIRUGARREN ZATIA	P. 30
6. JARDUTEKO PROZEDURA	P. 30
A. DATUAK	P. 31
B. PREBENTZIOA	P. 31
C. ARRISKUAN DAUDEN NESKAK IDENTIFIKATZEA ETA DETEKTATZEA, ETA ESKU-HARTZE PREBENTIBOA EGITEA FAMILIEKIN.	P. 32
D. BIZIRIK ATERA DIRENAK DETEKTATZEA ETA HAIEKIN ESKU-HARTZEA EGITEA	P. 35
E. JARDUKETA KOORDINATUEN ZIRKUITUA	P. 37
F. ARRETA ESPEZIALIZATUA ETA ERREPARAZIOA	P. 43
G. BABESA ETA JUSTIZIARAKO SARBIDEA	P. 44
H. PRESTAKUNTZA	P. 44
7. PROTOKOLOAREN KUDEAKETA	P. 47
LAUGARREN ZATIA	P. 52
8. 1. ERANSKINA. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA	P. 52
9. 2. ERANSKINA. KONPROMISO PREBENTIBOA	P. 65

0. LABURDURAK ETA AKRONIMOAK

- SIAIZ: Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroa
- GIBOAT: genero-indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak
- NABI Nafarroako Berdintasunerako Institutua
- HB: Harrera-baliabideak: larrialdietako zentroa, abegi-etxea eta egoitza-etxebizitzak
- DBAB: Delituen Biktimen Arretarako Bulegoa
- EUAZ Iruñeko Udalaren Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua
- O-NOZ: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
- SUOAZ: sexu- eta ugalketa-osasuneko zentroak
- BARNAHUS: Sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeei osoko arreta emateko erredua
- SABILO: 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa.

1. AURKEZPENA

Nazio Batuen Erakundeak berretsi duen moduan, emakumeen mutilazio genitala emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria ekintza bat da; ohitura edo jardunbide kaltegarri bat da, giza eskubideak baliatzea galarazten diena eta larriki mehatxatzen dituen haien duintasuna, ongizatea eta osasuna (fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ugalketakoa). Unicefen (2024) azken zifren arabera, munduan 230 milioi neskato eta emakume inguruk pairatu dute emakumeen mutilazio genitala; 4 milioi neskato inguruk pairatzen dute urtero.

Zenbait azterketak erakutsi dute emakumeen mutilazio genitala ez dela Afrikako herrialdeetan soilik gertatzen. Asian eta Ekialde Hurbileko zenbait herrialdetan ere gauzatzen da jardunbide kaltegarri hori, eta migrazio-prozesuekin lotura izan ohi du. Alde horretatik, Unicefen arabera (2024) 80 milioi emakumek pairatu dute Asian mutilazio genitala, 6 milioik Ekialde Hurbilean, eta 1 eta 2 milioik hizpide dugun mutilazioa gauzatzen duten komunitateetan eta migratzaileen jomuga diren munduko beste herrialde batzuetan. Latinoamerikan ere hauteman da, Kolonbiako zenbait tokitan. Bestalde, emakumeen mutilazio genitalaren forma berriak azaltzen ari dira eta, horregatik, informazioa eguneratu beharra dago eta gaiari heldu behar zaio modu integralean, dinamikoan, espezializatuan eta kulturean, aintzat hartuta emakumeen mutilazio genitalak emakumeen giza eskubideak urratzen dituela, emakumeen kontrako indarkeriazko ekintza bat delako eta, horrenbestez, diskriminazio-modu bat. Era berean, neskatoen giza eskubideak urratzen ditu. Neskatoek babesare handiagoa behar dute, eta eskubide espezifikoak dituzte haur izateagatik: eskubidea dute, esaterako, beren interes gorena lehentasunez kontuan har dezaten.

2013an, “Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloa” onetsi zen. Horrela, Foru Komunitatea era honetako protokolo bat zuten lehen autonomia-erkidegoetako bat izan zen. Protokolo horrek koordinazio-esparru bat ezarri zuen, Foru Komunitatean emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta haren aurrean esku hartzeko. Protokolo horrek, halaber, EMGari, hots, emakumeen mutilazio

genitalari buruzko oinarrizko zenbait ezagutza ematen dizkie gizarte-, osasun- eta hezkuntza-sistemako profesionalei; zenbait adierazle ematen ditu jardunbide hori detektatzeko, eta jarduketa-arau protokolizatu batzuk ematen ditu Nafarroan detektatzen diren kasuetan arreta emateko eta kasu horien jarraipena egiteko.

2014an, Espainiako Estatuak Istanbulko Hitzarmena berretsi zuen, eta urte horretan sartu zen indarrean Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa (2011). Istanbulko Hitzarmenaren ildotik, 2015. urtean 14/2015 Foru Legea onetsi zen, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa. Foru lege horren 3. artikuluan emakumeen mutilazio genitala jotzen da emakumeen kontrako indarkeriazko ekintzatzat. 14/2015 Foru Legearen 40. artikuluan (Detekzioa eta arreta, emakumeen genitalen mutilazioari eta ezkontza behartuei dagokienez) xedatu da ezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jarduketa-protokolo batzuk ezarriko dituela, emakumeen mutilazio genitalaren eta ezkontza behartuen kasuak detektatzeko eta artatzeko; eta horretarako, beharrezkoa den berariazko prestakuntza emanen zaiela horrelakoetan esku hartzen duten profesionalei. 14/2015 Foru Legea oinarri hartuta, “Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakundearteko III. akordioak” aitortzen du emakumeen mutilazio genitala emakumeen kontrako indarkeriazko ekintza bat dela, eta esparru bat ezartzen du koordinatu eta elkarlanean aritu daitezen Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta hari modu integralean heltzeko orduan parte hartzen duten erakunde guztiak.

2024ko apirilean, Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroa (SIAIZ) ireki zen Nafarroan. Baina, arau-esparru foralari esker, lehendik ere artatzen ziren sexu-indarkeriaren biktimak edo hartatik bizirik atera direnak —emakumeen mutilazio genitalekoak barne— bai genero-indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeetan (GIBOAT), bai eta Iruñeko Udalaren Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuan ere (EUAZ). Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko Lege Organikoan Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroak jaso ziren, sexu-indarkeriaren biktima edo hartatik bizirik atera direnen arreta integral, espezializatu eta eskuragarriko eskubidearen baitan. Lege organiko horrek emakumeen mutilazio genitala indarkeria

sexualtzat jotzen du. Gainera, emakumeen mutilazio genitala Zigor Kodearen 149.2 artikuluan tipifikatuta dago.

Nafarroan, Emakumeen Mutilazio Genitala Prebenitzeko eta haren aurrean Jarduteko Protokoloa erreferentziazko tresna da, Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta hartatik bizirik atera diren emakumeak artatzeko. Protokolo hori eguneratu beharra dagoela ikusita, eta urte hauetan guztietan egindako lana aitortuta —batez ere, emakumeen mutilazio genitalaren aurrean Nafarroan esku hartzen duten erakunde sozialek egindako lan garrantzitsua—, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak protokoloa ebaluatzeko eta eguneratzeko prozesu bat bultzatu zuen, genero-ikuspuntu feminista eta interseksional batetik abiatuta, eta giza eskubideetan nahiz neskatoen eskubideetan oinarritua. Horretarako, zenbait elkarrizketa egin ziren, baita inkesta bat eta foku-talde bat ere. Horrez gain, arreta berezia jarri zen azken urteotan izan diren aldaketetan, legezko aldaketetan, bereziki. Prozesu horren bidez Nafarroan Emakumeen Mutilazio Genitala Prebenitzeko eta haren aurrean Jarduteko Protokoloa eguneratu da eta, horrenbestez, 2025eko dokumentua aurkezten dugu.

Protokolo eguneratuak lau atal ditu:

- Lehen atalean protokoloa aurkezten da, erreferentziako araudia ezartzen da, baita xedea, helburuak, eskumen- eta antolakuntza-esparrua, eta esku-hartzea bideratzen duten printzipioak ere.
- Bigarren atalean, emakumeen mutilazio genitalaren kontzeptua azaltzeaz gain, zehazten da zer mota dauden eta zein diren haren ondorioak, baita gaiari heltzeko gakoak ere.
- Hirugarren atalean, jarduketa-prozedura garatzen da: datuen ekoizpena, prebentzioa, arriskuan diren neskatoak identifikatzea eta detektatzea, esku-hartze prebentiboa egitea familiekin, bizirik atera direnak detektatzea eta haiekin esku-hartzea egitea, koordinatutako jarduketan zirkuitua, arreta espezializatua, erreparazioa, babesa, justiziarako sarbidea eta prestakuntza. Horrez gain, protokoloaren kudeaketa azaltzen da.

- Laugarren apartatuan, azkena baita, erreferentziazko araudia erantsi da (1. eranskina) eta konpromiso prebentibo eguneratua (2. eranskina).

2. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

Jarraian, erreferentziazko foru-arauak, estatukoak eta nazioartekoak aipatzen dira, zeinak garatu eta xeheki azalduko baitira I. eranskinean.

NAFARROA

- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa
- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.
- 13/2023 Foru Legea, apirilaren 5ekoa, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzekoa

ESTATUA

- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilar buruzko Legearen zati batzuk ere aldatzekoa.
- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.

- 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzkoa.
- 1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarriko eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoa
- 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, Asilo Eskubidea eta Babes Subsidiarioa Arautzen dituen

NAZIOARTEA

- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989)
- Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzei buruzko Konbentzioa (1979)
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzekoa eta borrokatzekoa (2011)
- 2024/1385 (EB) Zuzentaraua, 2024ko maiatzaren 14koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari buruzkoa.
- 2012/29/EB Zuzentaraua, Delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxienezko arauak ezartzen dituen, eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen duena.

3. PROTOKOLOAREN XEDEA, HELBURUAK ETA ESKUMEN-ETA ANTOLAKETA-ESPARRUA

A. XEDEA

Protokolo honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean esparru komun bat ezartzea emakumeen mutilazio genitalaren aurrean jarduteko.

Protokolo hau Nafarroako beste protokolo batzuekin osatuko eta koordinatuko da, osoko erantzun bat eman ahal izateko edozein eratako indarkeria-egoera bizi duten emakumeei, neskatoei eta nerabeei, kontuan izanik, batetik, indarkeria horren *continuuma* eta zer lotura dagoen era askotako haren agerpenen artean; eta, bestetik, emakumeen eta

neskatoen kontrako indarkeriarik gabe bizitzeko eskubideak lotura handia duela berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearekin.

B. HELBURUAK

OROKORRA

Protokolo honen helburu nagusia da Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen diren emakumeen mutilazio genitaleko kasuen aurrean jarduketa-prozedura koordinatu eta espezializatu bat ezartzea, biktimen eta bizirik atera direnen eskubideak bermatuko dituen, genero-ikuspegi batetik, giza eskubideak eta neskatoen eskubideak oinarri hartuta. Protokoloa kulturartekoa eta interseksionala izanen da, eta behar bezalako arduraren printzipioa izanen du oinarri.

ESPEZIFIKOAK

- Erreferentziazko araudia ezartzea, emakumeen mutilazio genitalaren aurrean.
- Garatzea zer printzipiok bideratu behar duten esku-hartzea, emakumeen mutilazio genitala gertatzen den kasuetan.
- Ezartzea emakumeen mutilazio genitalaren kontzeptualizazioa, ezaugarriak, motak eta hari heltzeko gakoak.
- Jarduketa-prozedura zehaztea eta diseinatzea, honako hauek kontuan izanik:
 - Datuen ekoizpena
 - Emakumeen mutilazio genitalaren prebentzioa
 - Arriskuan diren neskatoak eta nerabeak identifikatzea eta detektatzea, eta esku-hartze prebentiboa egitea familiekin

- - Mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeak detektatzea eta haiekin esku-hartzea egitea
- Jarduketa koordinatuen zirkuitua
- Arreta espezializatua eta erreparazioa
- Babesa eta justiziarako sarbidea
- Prestakuntza
- Protokoloa nola kudeatuko den ezartzea (jarraipena eta ebaluazioa).
- Konpromiso prebentiboaren dokumentua prestatzea, protokoloaren osagarri.

C. ESKUMEN- ETA ANTOLAKETA-ESPARRUA

ESKUMEN-ESPARRUA

Protokolo hau honako erakunde eta entitate hauentzat da:

- Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI), Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoa den aldetik eskumena baitu emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak bultzatu, koordinatu eta kudeatzeko; gainera, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren jarraipen-batzordeko burua da. Protokoloa koordinatzea NABIrri dagokio, baita haren jarraipena eta ebaluazioa egitea, datu-erregistroa zentralizatzea, prebentzio-neurriak bultzatzea eta prestakuntzarekin lotutako aferak ere.
- Nafarroako Foru Komunitatean dauden erakunde publikoak (Nafarroako Gobernua, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia eta Nafarroako Udalerri

eta Kontzejuen Federazioa), baldin eta sinatu badute Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioa.

- Nafarroako Foru Komunitatean dauden segurtasun-kidegoak.
- Emakumeen kontrako indarkeriari heltzeko eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuako departamentuak.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ).
- Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroa, genero-indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak eta Iruñeko Udalaren Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua.
- Harrera-baliabideak (HB).
- Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketatik bizirik atera direnentzako eta prostituzio-testuinguruetakako emakumeentzako harrera-baliabideak.
- Sexu- eta ugalketa-osasuneko zentroak.
- Delituen Biktimen Arretarako Bulegoa.
- Honako hauek parte-hartuko dute: emakumeen genitalen mutilazioaren gaiari heltzen dioten eta bizirik atera direnei lagun egiten dieten gizarte-erakunde eta GKEek; - mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeek; emakume errefuxiatuekin, migratzaileekin, gazteekin eta neskatuekin lan egiten duten erakundeek; emakumeen mutilazio genitaleko kasuak prebenitzeko, detektatzeko, identifikatzeko, haietan esku hartzeko eta lagun egiteko eskumenak dituzten beste erakunde publiko batzuek, eta arreta espezializatua, erreparazioa, babesa eta justiziarako sarbidea ematen dutenak (horien barnean dira haurrak artatzeko baliabide eta zerbitzu espezializatuak).
-

ANTOLAKUNTZA-ESPARRUA

- **Protokoloaren jarduketa-eremua:** Nafarroako Foru Komunitatea.
- **Indarraldia:** Protokoloak ez du iraungitze-epe zehatzik, eta eguneratuko da hala ezartzen duenean Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren jarraipen-batzordeak.
- **Hedapena:** protokoloan parte hartzen duten erakunde publikoek, bakoitzaren eskumenak aitortu eta independentzia judiziala errespetatuta, protokoloa aplikatzeko behar diren baliabideak jarri behar dituzte.
- **Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldea.** Protokoloa gauzatzeko, diziplinarteko talde bat eratuko da: Emakumeen Mutilazio Genitala Prebenitzeko eta Artatzeko Diziplinarteko Taldea eratuko da, “Protokoloaren kudeaketa” atalean xedatu den moduan.

4. ESKU-HARTZEA BIDERATZEN DUTEN PRINTZIBIOAK

Emakumeen Kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeko printzipio gidarietan oinarrituko da emakumeen mutilazio genitalaren arloko esku-hartzea. Horrez gain, emakumeen mutilazio genitalak neskatoei eragiten dienez, kontuan hartuko dira, halaber, neskatoek haur izateagatik dituzten eskubide bereziak.

Giza eskubideak errespetatzea, babestea eta sustatzea	Emakumeen mutilazio genitalaren aurrean, erakundeek eta profesionalek neskatoen, emakumeen eta nerabeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatuko dituzte. Horretarako, neskatoak, emakumeak eta nerabeak eta haien eskubideak jarriko dira erdigunean.
---	--

Behar bezalako arduraz eta prestasunez aritzea	Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako jarduketa oro behar den arretaz eginen da, erantzukizun instituzionaleko maila guztietara zabalduko da erantzuna (prebentzioa, babesa, laguntza, erreparazioa biktimei eta bizirik atera direnei, eta justizia sustatzea), eta helburu izanen du bizirik iraun dutenen eskubideak bete daitezela. Horretarako, emakumeen mutilazio genitalak eskatzen duen prestakuntza eta espezializazioa bultzatuko dira, arreta berezia eskainita interseksionalitateari eta kulturartekotasunari. Era berean, kontuan hartuko da neskatoei, haur izateagatik, are babes handiagoa eman behar zaiela.
Genero-ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekua	• Emakumeen mutilazio genitalaren aurrean izan beharreko erantzuna taxutzeko, emakumeen aurkako indarkeria baita, lehenik estereotipoak ulertu behar ditugu, baita genero-harremanak, haien erroak eta ondorioak ere. • Debeku da biktimen edo bizirik atera direnen eta erasotzaileen artean bitartekari lanak egitea.
Diskriminazioa debekatzea eta lurralde-oreka zaintzea	• Erakundeek emakumeen mutilazio genitalaren aurrean erantzungo dute inolako diskriminaziorik egin gabe, berdin dio zein den kasuan kasuko pertsonaren jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste

	edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, gaitasun ekonomikoa, sexu-joera, genero-identitatea, adina, osasun-egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatusa edo bizilekuari buruzko egoera administratiboa edo gutxiengo nazional bateko kide den. • Emakumeen mutilazio genitalaren aurrean jarduteko orduan, Nafarroako aniztasun geografikoa eta landa-eremuak hartuko dira kontuan. Horrela, bada, emakume, neskato eta nerabe orori jarduketetarako sarbidea erraztuko zaie, kontuan hartu gabe Foru Komunitateko zer tokitan bizi diren.
Interseksionalitatea eta diskriminazio anizkoitza artatzea	• Erakundeek, emakumeen mutilazio genitalaren aurrean erantzuteko orduan, kontuan hartuko dituzte, bereziki, emakumeen mutilazio genitalaren biktima diren edo hartatik bizirik atera diren neskato, emakume eta nerabeen artetik diskriminazio interseksionalak pairatzen dituzten edo paira ditzaketenak. Diskriminazio interseksionala da diskriminazio-arrazoi bat baino gehiago aldi berean elkartzea. Horrek diskriminazio-mota espezifiko bat sortzen du, berezko ezaugarriak dituen zapalkuntza-modu bat (Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 2. artikulua).

	• Erakundeek, emakumeen mutilazio genitalaren aurrean erantzuteko orduan, kontuan hartuko dituzte, bereziki, emakumeen mutilazio genitalaren biktima diren edo hartatik bizirik atera diren neskato, emakume eta nerabeen artetik beste diskriminazio-faktore gehigarri batzuk dituztenak (diskriminazio anizkoitza).
Erantzun integrala eta koordinatua	Erakundeek modu integral eta koordinatuan erantzungo dute emakumeen mutilazio genitalaren aurrean, eta kasuen jarraipena egingen dute. Horrez gain, koordinazioa eta sare-lana bultzatuko dute instantzien artean.
Begirunea eta ez birbiktimizatzea	Erakundeek, emakumeen mutilazio genitalaren kasuetan, errespetuz hartuko dituzte biktimak edo bizirik atera direnak, eta saiaturiko dira horiek ez birbiktimizatzen, eta neskatoen kasuan, oso kontuan hartuko dute haur ere badirela.
Erantzukizuna	Derrigorrezko prestakuntza jarraitua eta espezializatua emanen da emakumeen mutilazio genitalari buruz, arreta jarrita, bereziki, genero-ikuspegian, haurren eskubideetan, kulturartekotasunean eta interseksionalitatean.
Parte-hartzea	Sustatuko da emakumeen mutilazio genitalari aurre egiten esku hartzen duten gizarte-erakundeek eta GKEek parte har

	dezaten, baita kulturarteko bitartekari emakumezkoek, mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeek eta adituek ere.
Neskatoen eskubideak	Kontuan izanen da ezen neskatoek, haur izateagatik, eskubide zehatzak dituztela, eta eskubide horiek are gehiago babestu behar direla. Eskubidea dute, adibidez, beren interes gorena lehentasunez kontuan hartua izateko, diskriminatuak ez izateko, entzunak izateko eta haien iritzia aintzat hartua izateko. Horrez gain, osasunerako eskubidea ere badute, haurtzaroa oso garrantzitsua baita osasuna garatzeko.

5. EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA: KONTZEPTUALIZAZIOA, MOTAK, ONDORIOAK ETA GAIARI HELTZeko GAKOAK

A. KONTZEPTUALIZAZIOA

Emakumeen Kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak zehaztutakoaren arabera, emakumeen kontrako indarkeria da emakume izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan neurritz kanpoko eragina duena, genero-arrazoiengatik diskriminazioaren agerpen bat baita, eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena. Zenbait eratan ager daiteke: indarkeria bikotean edo bikote oihan, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatoen salerosketa, prostituzioa edo sexu-esplotazioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua eta emakumeen mutilazio genitala (3. artikulua)

14/2015 Foru Legean ezarritakoaren arabera, emakumeen mutilazio genitala da emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskatoaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa (3.2.g artikulua).

Unicefen (2024) azken zifra ofizialen arabera:

- Munduan 230 milioi neskato eta emakume inguruk pairatu dute emakumeen mutilazio genitala.
- Urtero 4 milioi neskato inguruk pairatzen dute.
- Afrikan, hainbat adinetako 114 milioi neskato eta emakume inguruk pairatu dute emakumeen mutilazio genitala; Asian, 80 milioik; Ekialde Hurbilean, 6 milioik; eta 1 eta 2 milioi artean izan dira ohitura hori duten komunitate txikietan eta migratzaileen jomuga diren munduko beste herrialde batzuetan.
- Emakumeen mutilazio genitala zabalduago dago herrialde batzuetan beste batzuetan baino. Gehien gauzatzen den herrialdeak Somalia, Ginea eta Djibuti dira.
- Zenbait herrialdetan, neskatoei oso-oso gazteak direla mutilatzen dizkiete genitalak; beste herrialde batzuetan, aldiz, nerabeak direla. Urtero, bi milioi neskatori gauzatzen diete mutilazio genitala bost urte bete aurretik. Testuinguru askotan, jaio eta egun edo aste gutxi batzuetara gauzatzen diete.
- Herrialdea zein den (eta, herrialde beraren barruan, etnia zein den), era batera edo bestera gauzatzen da emakumeen mutilazio genitala. Dena den, mutilazioa pairatu duten neskato gehienei bulba erauzi diete.
- Berriki -mutilazio genitala pairatu duten neskatoen % 66 osasun-langileek mutilatu dituzte.
- Ohitura hori duten komunitateetan, emakumeen eta gizonen ehuneko handi bat dago mutilatzen jarraitzearen kontra. Emakumeen mutilazio genitala gauzatzeko ohitura

duten Afrikako eta Ekialde Hurbileko herrialdeetan, herritarren bi herenak, hots 400 milioi lagunek nahi dute emakumeen mutilazio genitalik ez egitea.

- EMGa pairatu duten 10 neskato edo emakumeetatik 4 inguru bizi dira gatazkak dituzten edo erakunde eta gizarte ahulak dituzten herrialdeetan.

Unicefek eman duen azken informazioan ikus daitekeen moduan, emakumeen mutilazio genitala ez da Afrikako herrialdeetan soilik gertatzen. Era berean, migrazio-prozesuekin ere badu lotura. Zabaldu duten azken informazioak berresten du kontinente guztietan gauzatzen dela emakumeen mutilazio genitala. Latinoamerikan, esaterako, zenbait kasu hauteman dira Kolonbiako toki batzuetan. Alde horretatik, eta bat etorrita Andaluziako profesionalentzako gidaliburua. Emakumeen mutilazio genitalaren prebentzioa eta arreta (2018) argitalpenean adierazitakoarekin:

«Nabarmendu beharra dago herrialde horietan bizi diren talde etniko guztiek ez dutela EMGa gauzatzen, eta hura gauzatzen duten etnia guztiek ez dutela prozedura bera baliatzen. Adibidez, Gambian EMGaren prebalentzia handiagoa da (% 76,6) Senegalen baino (% 26). Bitxia da halako aldea egotea bi herrialde horien artean, batez ere, kontuan izanik Senegalek osotara inguratzen duela Gambia. Halako aldea dago Gambiako herritarren % 42 mandinga etniakoak direlako, eta EMGaren prebalentzia % 96,7koa delako hartan; Senegalen, berriz, herritarren % 42 wolof etniakoak da, eta ez dute EMGa gauzatzen. Kenyan, I. eta II. motakoak dira EMG gehienak, baina Somaliako kenyarren artean III. motakoak dira EMGen % 13,4. Aldeak daude, bai biztanleria hori osatzen duten talde etnikoen artean, bai talde etniko beraren barruan ere.

Kalkulatu da, era berean, zein den EMGaren prebalentzia Ekialde Hurbileko herrialdeetan —Irak (WADI, 2010), Iran (Ahmadi, 2015) edo Yemen (USDS, 2001)— eta Asiako herrialde batean: Indonesian (Budiharsana, 2003). Erregistratutako zenbait datuk berresten dute EMGa gauzatzen dela lurralde horietako hainbat eremu eta eskualdetan; eta Indonesian, EMGa medikalizatuta dagoela berretsi da (osasun-profesionalek gauzatzen dute, ospitaleetan).

EMGaren prebalentzia zenbatekoa den kalkulatu ez bada ere, Malaysian ere detektatu da (Dahlui, 2010) (hor prozedura medikalizatuta dago, Indonesian dagoen moduan), baita

Omanen ere (Al Hinai, 2014), non eskala txikiko azterlanek iradokitzen baitute EMGa oso zabaldua dagoela.

Horrez gain, egiaztatu eta berretsi da EMGa beste talde hauetan ere gauzatzen dela: Sri Lankako talde etniko batzuetan (OFPPA, 2015), Kolonbiako Emberá-Chamí eta Nasa taldeetan (FNUAP-Kolonia, 2011), eta Indiako Dawoodi Bohra komunitatean (Sahiyo, 2016). Duela gutxi, EMG kasuak identifikatu eta jakinarazi dira (egiaztatu ez badira ere) Arabiar Emirerrietako tokiko tribu batzuetan (Marzouqi, 2011), Israelen mugakide den Jordaniako herri batean (Charkasi, 2012), Dagestango bost eremu menditsutan (Kaukasoko eskualdearen iparraldean, Errusian) (Russian Justice Initiative erakundearen txostenaren arabera), eta Georgiako ekialdean dagoen avar talde etnikoan (IWPR, 2017).

EMGa migrazio mugimenduekin batera zabaltzen ari da munduan barrena. Hortaz, Europan, Ipar Amerikan, Australian eta Saudi Arabian ere izaten da EMG kasurik, lurralde horiek hartzen baitituzte, gehienbat, EMGa gauzatzen den herrialdeetako migratzaileak. Munduko diasporek ohitura horri eusten diote» (26-28 or.).

Bestetik, “emakumeen mutilazio genitalak esanahi sinboliko handia du hura gauzatzen duten komunitateentzat”. Beraz, Andaluziako profesionalentzako gidaliburua. Emakumeen mutilazio genitalaren prebentzioa eta arreta (2018) argitalpenean adierazten den moduan, honako hau izan behar dugu kontuan:

«Afrikan, kulturaren oinarritzko bi balioekin lotzen da EMGa: komunitateko kide izatearen sentimenduekin eta sexuen arteko osagarritasunarekin. Gizarte batzuetan, EMGa helduaroko hastapen-zeremonien parte da oraindik, eta zuzenean eragiten du emakumeen rolen eta estatusaren eraikuntzan, etnia- eta genero-identitatea ematen baitu. Harrotasun-sentimendua eta taldeko kide izatearen sentimendua transmititzen ditu, neskaren feminitatea bermatzen duen proba fisikoa da, eta aukera ematen du komunitateko eta emakumeen mundu sekretuko kide izateko behar den ezagutza lortzeko (Kaplan, 1998; Kaplan, et al., 2013a).

Hauek dira hizpide dugun ohitura betikotzea justifikatzen duten arrazoietakoz batzuk: tradizioari eusteko beharra (“beti egin izan da horrela”, “ohikoa da”, “naturala da”) eta erlijioa (“*sunni* bat da”, “betebehar erlijioso bat da”); arrazoi higienikoak (“garbiagoa da”) eta arrazoi estetikoak (“baliteke klitoria gehiegi haztea, zakil baten moduan”);

birjintasuna babestea eta promiskuitatea prebenitzea (“moztu ez duten emakume batek sexu-desira kontrolaezina du, eta birjintasuna behar baino lehen galduko du”); familiaren ohorea gordetzea; senar “egokia” edukitzera iristeko berme handiagoa; edo ugalkortasuna areagotzea (“fetu gutxiago jaiotzen dira hilik”, “emakumeek haur gehiago izan ditzakete”) eta ugalkortasuna (“kanpoko genitalek eragin dezakete haurra jaiotzeko unean hiltzea, eta deformazio fisikoak edo psikikoak izatea”) (Kaplan, Hechavarría eta Puppo, 2015: 29-32).

- “Tradizioak agintzen du”

Familiak ohiturari eusten diote oraindik ere, eta beharrezko erritual moduan bizi dute, neskatoak helduarorako eta ezkontzarako presta daitezen eta komunitateak bazter ez ditzan. Batzuetan, trantsizio bat da, amek eta amonek antolatzen duten ekitaldi bat beren alabak eta bilobak gizartean aurkezteko, ahalik eta heziketarik eta integraziorik onena eskaintzeko asmoz. Ez da beti une berean egiten (jaio ondoko zazpi egunetatik pubertarora arte), baina lehen hilekoa izan aurretik egin ohi da (neskatoa zer etniatakoa den). Gaur egun, gero eta neskato gazteagoi egiten ari zaie; garrantzi handiagoa ematen baitzaio “mozketari” haren inguruko "erritualari" baino (Kaplan, Hechavarría eta Puppo, 2015).

- “Erljioak agintzen du”

EMGa gizarte askotan gauzatzen da: komunitate musulmanak, kristau koptoak eta judu falashak (adibidez, Egipton eta Etioipian, hurrenez hurren). Ohitura hori nondik datorren ez dakitenez, zenbait komunitatek erlijioarekin lotu dute, baina ez da halakorik aipatzen, ez Biblian ez Koranean. Gizarte musulmanetan, adibidez, *sunnatzat* hartzen dute, hau da, tradizio erlijioso bat edo “Jainkoarentzat ona den guztia”. Hala ere, eskola eta agintari islamiko batzuk ohitura hori baztertzearen alde agertu dira, eta hura gaitzesten dute beren iritzia emateko aukera duten orotan (Gomaa, 2013). Azpimarratu beharra dago, garrantzitsua baita, EMGa islamaren aurreko ohitura dela, eta Koranak ez duela horri buruzko aipamenik egiten atal bakar batean ere.. Gizonen zirkunzizioaren kasuan, Bibliak bai aipatzen du, Itun Zaharrean (Genesia, Lebitikoa, Deuteronomioa, Exodoa, eta abar). Gizonen kasuan islamaren betebeharrak bat da, emakumeen kasuan, aldiz, betebeharrak sozialak.

- “Higienikoagoa eta estetikoagoa da”

EMGa gauzatzeko ohitura duten komunitateentzat emakumeen kanpoko genitalak gorputzaren zati antiestetiko eta zikin bat dira. Horregatik, genitalak moldatzean neskak “garbi” eta “polit” daude; haien ustez genitaletako “elementu maskulinoak” ezabatzea da, uste baitute, esaterako, klitoria zakilaren moduan haz daitekeela. Infibulazioa gauzatzen dute, genitalak “lisatuta” emakumeak edo neskatoak bere komunitateko edertasun-estandarra bete dezan, gizonen sexu-desira areagotzeko. Gizarte jakin batzuetan erauzketarik gabeko emakume batek prestatutako janaria jatea tabua da. Erauzketarik gabeko emakume batek elikagaiak kutsatzen ditu, ez baita izaki garbia (Kaplan, 1998; Johnsdotter eta Essén, 2010).

Gizonak ere higie hie kontu bategatik zirkunzidatzen dituzte: gizon zirkunzidatua gizon garbia da. Nolanahi ere, badira funtsezko zenbait desberdintasun gizonen zirkunzizioaren eta emakumeen erauzketaren artean, eta horietako bat kulturek batari eta besteari ematen dioten izaera erlijiosoa da.

- “Birjintasuna babesten du, promiskuitatea prebenitzen du eta familiaren ohorea zaintzen du”

Gizarte batzuetan, emakumeak birjina izan behar du ezkondu ahal izateko, ezinbestez; eta familiaren ohorea horren mende dago. EMGak neskatoaren birjintasuna bermatzen duela uste dute, haren “beroa apaltzen duelako”, sexu-bulkadak kontrolatzen eta promiskuitatea saihesten duelako.

- “Ugalkortasuna handitzen du eta emankortasuna indartzen du”

Haien ustez, emakumeak baginako zuloa infibulazioaren bidez estutzen baldin badu gizonaren sexu-plazera areagotu dezake, eta arrisku gutxiago izanen da senarra desleiala izateko edo dibortziateko. Komunitate batzuek uste dute, - haurtxoa hil egin daitekeela, jaiotzean amaren klitoria buruarekin ukitzen badu (lehen haurdunaldiko hilkortasuna), edo deformazio fisikoak edo mentalak izan ditzakeela (13-15 or.).

Hala, Munduko Medikuek erakundeak adierazi duenez, badira zenbait mito eta sineskeria emakumeen genitalen mutilazioaren inguruan, eta ezeztatu egin behar dira:

- **Erljioak hala behartzen du.** Erljio bakar batek ere ez du exijitzen emakumeen genitalak mutilatzeko. Zonarekin eta etniarekin du lotura, ez erljioarekin. Antzinako Egipton sortu zen, eta ez da Koranean agertzen, ezta beste ezein kredotan ere. Zenbait estatu islamikotan ez dute gauzatzen, hala nola Marokon, Aljerian edo Saudi Arabian, eta kristau batzuek ere gauzatzen dute Nigerian eta Kamerunen, esaterako.
- **Afrikako herrialde guztietan gauzatzen dute, eta kontinente horretan soilik.** Afrikako komunitate batzuetan onartuta dagoen ohitura bat da, baina ez da kontinente osoan gauzatzen. Badira ohitura hori duten Ekialde Hurbileko eta Asiako komunitate batzuk ere. Latinoamerikako komunitate indigena batzuetan ere gauzatzen dute.
- **Higienikoagoa da.** Alderantziz: odoljarioak eragin ditzake, baita gernu- eta bagina-infekzioak (odola pilatzeagatik), fistulak, gaixotasunak, hala nola tetanosa, GIBa edo hepatitis, eta heriotza ere.
- **Ona da neskatoentzat.** Uste da, neskatoak erauzketa egina ez badu, ezkontzarako baztertuko dutela, eta horrek esan nahi du ez duela bere etorkizuna bermatua izanen. Nolanahi ere, ikusita zer ondorio larri dituen emakumeen mutilazio genitalak neskatoen osasunaren gain —hala berehala nola epe ertain zein luzean—, presio familiarrari eta tradizioari kontra egin behar zaie. Osasun mentalerako ere oso kaltegarria da, trauma ondoko estresa sor baitezake, baita depresioa, antsietatea, beldurrak eta jarrera-aldaketa ere, gazteengan.
- **Ohiturak eta tradizioak dira.** Baldin ohitura bat osasunerako kaltegarria bada eta emakumeen eta neskatoen oinarritzko eskubideen kontrakoa bada aldatu egin beharko da, eta, haren ordeaz, haien ongizatea bermatzen duen beste bat hartu. Badago aukera inimizazio-errituak EMGrik gabe egiteko.
- **Emakumeen genitalen mutilazioa eta gizonen zirkunzisia parekoak dira.** Ez, ez dira parekoak. Alde handiak daude bataren eta bestearen artean. Zirkunzisia ez du eragin negatiborik gizonengan, ez haien osasunean ez eta sexualitatean ere.

- **Genitalak mutilaturik dituzten emakumeek haur gehiago dituzte.** Emakumeen genitalak erauzteak ez du ugalkortasuna handitzen. Aitzitik, emakume horiek zailtasunak izan ditzakete umea egitean, eta haurra hiltzeko arrisku handiagoa dago. Zenbaitetan, emakumeak antzu geratzen dira mutilazioak eragindako infekzioen ondorioz.
- **Emakumea leiala izatea eta ezkontzara birjina iristea bermatzen du.** Klitoria izateak edo ez izateak ez du baldintzatuko pertsona baten leialtasuna. Genitalen mutilaziorik izan ez duen emakumeak osasun hobea du, bikotearekin gozatuko du, ziur aski, eta horrek ez du esan nahi desleial zaionik. Era berean, EMGak ez du bermatzen neskatoa birjina iritsiko denik ezkontza egunera. Balio horiek hezkuntzaren bidez transmititu daitezke, emakumeei eta neskatoei kalte fisikorik eragin gabe.
- **EMGak balio du jaioberrien osasun-arazoak prebenitzeko eta gizonek gaixotasunik ez hartzeko.** Emakumeen mutilazio genitalak ez du balio jaioberriek sortzean izan ditzaketen arazoak prebenitzeko ezta bikotekideei gaixotasunik ez transmititzeko.
- **Emakumeen mutilazio genitalari esker, gizonek plazer handiagoa sentitzen dute.** Gizakiok are gehiago gozatzen dugu gozatzen ari den eta ondo sentitzen den pertsona batekin ari garenean. EMGa pairatu duen emakumeak, nonahi ere, aukera gutxiago ditu plazera sentitzeko.

Gainera, kontuan izan behar da ezen, OMEk adierazitakoaren arabera, badirela EMGa gauzatzera bultzatzen duten zenbait faktore kultural eta sozial, adibidez, honako hauek:

- Erauzketa konbentzio edo arau sozial bat den lekuetan, badira indar handiko zenbait arrazoi ohitura horri eusteko: batetik, gizarteak presioa egiten du, norbanakoak joka dezan besteek eta aurrekoek egin duten moduan; eta, bestetik, norbanakoak badu gizarteak bera onartzeko beharra eta komunitateak baztertzeko beldurra.

- Emakumeen mutilazio genitala, askotan, neskatoaren hazkuntzaren funtsezko katebegitzat hartzen da, eta helduarorako eta ezkontzarako prestatzeko modutzat. Baliteke haren sexualitatea kontrolatzeko modu bat ere izatea, ezkontza egunera birjina iritsiko dela eta behin ezkondua senarrari leial izanen zaiola ziurtatzeko.
- Ez da emakumeen mutilazio genitala gauzatzeko agintzen duen testu sakraturik. Nolanahi ere, batzuek uste dute motibazio erlijiosoa dagoela oinarrian. Erlijio-buruzagi bakoitzak bere jarrera du hizpide dugun ohituraren aurrean, eta jendeak hizpide dugun ohitura bazter dezan laguntzen ari dira batzuk.

B. EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITAL MOTAK

OMEren sailkapenaren arabera, emakumeen mutilazio genitalaren lau mota daude:

- **1. mota:** klitoriaren glandea resekzionatzea, osorik edo partez (klitoriaren kanpoaldea, ikusten den zatia, hau da, emakumeen genitalen zati sentikorrena) edo klitoriaren prepuzio edo estalkia (glandea inguratzen duen larruazalaren tolestura) — orbaina ez da beti ikusten, eskuzko miaketa behar izaten da hura aurkitzeko—.
- **2. mota:** klitoriaren glandea eta ezpain txikiak (bulbaren barne-tolesturak) resekzionatzea, osorik edo partez. Zenbaitetan ezpain handiak ere erauzten dituzte (bulbaren kanpoko larruazaleko tolesturak).
- **3. mota** (“infibulazioa” ere esaten zaio): baginako sarrera estutzen dute, ezpain txikiak edo handiak mozten eta birkokatzen dituzte, zenbaitetan josi ere. Batzuetan, klitoriaren glandea eta prepuzioa edo estalkia resekzionatzen dituzte.
- **4. mota:** emakumeen genitalak kaltetzen duen beste edozein prozedura, helburu medikorik ez duena, hala nola ziztatzea, zulatzea, ebakitzea, arraspatzea edo eremu genitala kauterizatzea.

C. ONDORIOAK

Emakumeen mutilazio genitalak ondorioak ditu neskatoen, nerabeen eta emakumeen osasun fisikoan, psikologikoan, sexualean eta ugalketakoan, epe laburrean eta luzean, jarraian zehazten den moduan¹:

Epe laburrean	• Min handia edo larria • Odoljarioak • Sukarra • Ehun genitala handitzea, infekzio lokal baten edo hantura-erantzun baten ondorioz • Infekzioak, hala nola tetanosa edo giza immunoeskasiaren birusa (GIBa), B edo C hepatitisaren birusa (BHBa edo CHBa, hurrenez hurren) • Infekzio akutuak edo lokalak gernu-traktuan, traktu genitalean edo ugaltze-traktuan. Sepsia edo septizemia eragin dezakete, eta abzesuak sor daitezkeen eragin. • Gernu-erretentzioa, emakumeek mina sentitzen dutelako gernua zauriaren ertzetatik pasatzen denean, edo erauzketaren ondoren kaltea dutelako gernu-traktuan. • Gernu-ihesa • Orbaintze-arazoak • Lesioak, inguruko ehun genitaletan
---------------	--

¹Osasunean dituen ondorioei buruzko taula prestatzeko, honako hauetan emandako informazioa hartu dugu oinarri: OMEren Andaluziako profesionalentzako gidaliburua. Emakumeen mutilazio genitalaren prebentzioa eta arreta (2018), eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren EMGa Espainian izeneko txostena, Wassu-UAB Fundazioak egina (2020).

	• Shock-egoera • Inpaktua osasun psikologikoan • Heriotza
Epe luzean	• Gernu-arazoak (gernu-egite mingarria, gernu-traktuko infekzioak, errepikatuak izan daitezkeenak) • Baginako arazoak (leukorrea, pruritoa, bakterioengatiko baginosia eta beste infekzio batzuk). Kaltea ehun genitalean, eta, ondorioz, bulbako min kronikoa eta klitoriarena. Infekzio genital kronikoak • Arazo menstrualak (hileko mingarriak, zailtasunak odol menstrualak igarotzeko, odoljario handiagoko menstruazioak, eta abar) • Odoljarioak, baita menstruaziotik kanpo ere • Baginismoa • Ehun eta orbain keloideak • Infekzioak ugaltze-traktuan, zeinek pelbiseko min kronikoa eragin baitezakete • Ebakuntza kirurgiko gehiago egin behar izatea: baliteke 3. motako mutilazioa egin dieten emakumeek desinfibulazioa behar izatea, hau da, ebaki bat egitea irekidura zabaltzeko, eta koitoa egin eta erditu ahal izateko. • Beldurra • Umiliazio-sentimenduak • Lotsa

	• Gaueko izu-ikarak
Arrisku obstetrikok	• Erditze-lan luzea • Erditze lagundua • Erditze-lan zaila / distozia • Zesarea: kirurgia erabiltzea haur batez erditzeko. Zesarea kirurgia handi bat da eta arriskuak dakartza • Erdiondoko odoljariora: 500 ml odol edo gehiago galtzea • Episiotomia: prozedura kirurgikoa erditze-kanalaren irteera zabaltzeko, umea erditzen laguntzeko eta modu irregularrean urratu ez dadin uzkiaren eta bulbaren arteko eremua • Perineoko urradurak. Emakumeek perineoko urradurak izaten dituzte, batez ere, erditze baginalaren ondorioz, hartan perineoa tenkatzen baita, hots, uzkiaren eta bulbaren arteko eremua • Egonaldi luzeak ospitalean, erditu ondoren • Fetuaren heriotza edo jaioberriaren heriotza (jaio ondoko lehen lau asteetan) • Erditzean haurrak bizkortu beharra
Sexu-arriskuak	• Dispareunia (mina sexu-harremanak izatean) • Sexu-gogobetetasuna murriztea • Sexu-desira eta kitzika murriztea

	• Lubrifikazioa gutxitzea sexu-harremanak izatean • Orgasmoaren maiztasuna murriztea edo anorgasmia
Arrisku psikologikoak	• Trauma osteko estresaren nahasmendua • Antsietate-nahasmendua • Depresioa

D. GAIARI HELTZEKO GAKOAK

- Emakumeen mutilazio genitala emakumeen eta neskatoen kontrako indarkeria da eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa bat eta genero-arrazoiengatiko diskriminazio-modu bat.
- Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako jarduketa orok bizirik atera direnen giza eskubideak bermatu behar ditu, bai emakumeena bai, hala dagokionean, neskatoena ere, zeinek haur izateagatik babes berezia baitute.
- Emakumeen mutilazio genitala ez da gauzatzen Afrikako herrialdeetan soilik. Herrialde edo talde etniko jakin batekoa izateak ez du esan nahi EMGa gauzatuko dutenik. Beraz, oso garrantzitsua da kasu bakoitza aztertzea, familia-testuingurua eta arrisku-adierazleak kontuan hartuta.
- Emakumeen mutilazio genitala errealitate globala da, eta Afrikan, Ekialde Hurbilean edo Latinoamerikan gertatzen da, baita Europako herrialde batzuetan ere, migrazio-prozesuekin lotura duela kontuan hartuta.
- Batzuetan, emakumeen mutilazio genitala jaioberritan edo haurtzaroan gauzatzen da, beste batzuetan, berriz, nerabezaroan edo helduaroan. Era berean, etnia batzuetan emakumeari bitan egiten zaio erauzketa bizitzan: jaioberritan eta eztei-gauean.

- Emakumeen mutilazio genitalak esanahi sinbolikoa du hura gauzatzen duten komunitateentzat, eta, beraz, gaiari kulturarteko ikuspuntu batetik eta modu interseksionalean heldu behar zaio, hau da, kultura-bitartekari emakumezkoekin eta kasu horietan esku hartzen duten erakundeekin elkarlanean; erakunde horietako batzuk, gainera, bizirik atera diren emakumez osatuta daude.
- Emakumeen mutilazio genitalaren mota batzuk agerikoagoak badira ere, garrantzitsua da guztiak detektatzea, eta, horretarako, prestakuntza beharko da, baita ikerketa eta espezializazioa ere. Era berean, forma berriak agertzen ari dira; adibidez, haurtxoen genitalak toalla beroez erretzea.
- Emakumeen mutilazio genitalak ondorio oso larriak ditu, epe laburrean eta luzean, emakumeen osasun fisikoan, psikologikoan, sexualean eta ugalketakoan. Ondorio sozialak ere baditu. Beraz, gaiari heltzeko orduan oso garrantzitsua da osasun fisikotik harago joatea, eta bermatzea bizirik atera direnen errekupebaziorako eta erreparazio integralerako eskubideak.
- Emakume batzuek osasun-etxera joaten direnean jakiten dute, lehen aldiz, mutilazio genitala gauzatu dietela. Horregatik, oso garrantzitsua izanen da emakume horiei informazio delikatu hori errespetuz ematea eta birbiktimizatu gabe, gako kulturalak kontuan hartuta.
- Emakumeen mutilazio genitala gauzatzen duten komunitate horietan badira ohitura horren kontra dauden emakumeak eta gizonak, eta haien egitekoa funtsezkoa da giza eskubideen aurkako ohitura hori ezabatzeke.
- Komunitateekin, familiekin, gizonekin eta gazteekin lan egitea funtsezkoa da praktika kaltegarri hori errotik ezabatzeke.
- Emakumeen mutilazio genitala asilo-kausa da Espainian.

6. JARDUTEKO PROZEDURA

Nafarroan modu koordinatuan eta espezializatuan erantzun eta jardun beharra dago emakumeen mutilazio genitalaren aurrean, eta bermatu behar dira biktimen edo bizirik atera direnen eskubideak, hori guztia genero-ikuspegia, giza eskubideak eta neskatoen eskubideak zainduta, kulturartekotasunez eta modu intersekszionalean. Gainera, behar bezalako arduraz jokatu beharra dago, honako hauek landuta: datuen ekoizpena, prebentzioa, arriskuan diren neskatoak eta nerabeak identifikatzea eta detektatzea, esku-hartze prebentiboa gauzatzea familiekin, mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeak detektatzea eta haiekin esku-hartzea egitea, koordinatutako jarduketazirkuitua, arreta espezializatua, erreparazioa, babesa, justiziarako sarbidea eta prestakuntza.

A. DATUAK

Emakumeen mutilazio genitalaren kasuen berri duten baliabide guztiek kasu horien erregistroa eramanen dute, datuen babesa bermatuta. Hartan adieraziko dute kaltetutako neskato edo nerabe bakoitzak eta bizirik atera den emakume bakoitzak zenbat urte dituen, zer herrialdetakoa den eta haren familia zer etniatakoa den. Erregistro hori urtero helaraziko diote NABIRi, eta hark zentralizatu beharko ditu Nafarroan erregistratzen diren emakumeen mutilazio genitalen kasuei buruzko datuak. Osasun Departamentuak NABIRi jakinaraziko dio zenbat konpromiso prebentibo sinatu diren urtean. Jakinaraziko dio, halaber, bidaian joan ondotik neskato, nerabe eta emakumeak kontsultara joan ziren edo ez, eta, joan baldin baziren, mutilazio genitalik zuten edo ez. NABI elkarlanean arituko da emakumeen mutilazio genitalen kasuetan esku-hartzen duten gizarte-erakundeekin, jakiteko zenbat kasu hauteman dituzten urtean. Urtero, jarraipen txostena egingen da Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioari buruz (ikusi protokoloa kudeatzeari buruzko atala), eta txosten horretan jasoko dira NABIk zentralizatutako datuak.

B. PREBENTZIOA

NABIk emakumeen genitalen mutilazioari buruzko prebentzio- eta sentsibilizazio-neurriak bultzatuko ditu Nafarroan. Zeregin horretan, parte har lezaketek emakumeen mutilazio genitalari aurre egiten esku hartzen duten erakunde sozialek eta GKEek, eta bizirik atera direnei lagun egiten dietenak.

Arreta berezia jarriko da hezkuntzaren, gizartearen eta osasunaren arloetan, eta zainduko da neurriek genero eta kulturarteko ikuspegia eta ikuspegi intersektionala izatea, eta neskatoen eskubideak kontuan hartzea. Hezkuntza-arloko prebentzio-neurriei dagokienez, zainduko da, bereziki, ematen den informazioak ez dezala bidea eman jeneralizatzeko edo estereotipoak errepikatzeko herrialde jakin batzuetako ikasleen eta haien familien gainean: ez ditzagun estigmatizatu.

Neurri horien barruan, erakundeek sentsibilizazio-kanpainak egingen dituzte emakumeen mutilazio genitalari buruz, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen den aldetik. Kanpaina horiek zuzenduko zaizkie herritar guztiei, emakumeen mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeei, eta emakumeen mutilazio genitala gauzatzeko ohitura duten herrialdeetatik datozen neskatoen, nerabeen eta emakumeen komunitateko gazteei eta gizonei.

Prebentzio-neurriei dagokienez, familiekin eta inguruko pertsonekin lan egingen da, erraz ulertzeko moduko informazioa emanen zaie, hainbat hizkuntzatan, emakumeen mutilazio genitalari buruz, legezko ondorioei buruz eta bizirik atera direnek eskura dituzten baliabideei buruz.

Prebentzio-neurriak bultzatuko dira bai migratzaileekin eta errefuxiatuekin lan egiten duten erakundeekin eta GKEekin, bai eta emakumeen mutilazio genitala gauzatzeko ohitura duten herrialdeetako enbaxada eta kontsulatuetan ere.

Prebentzio-neurriak lurraldean barrena modu orekatuan banatze aldera, tokian tokiko koordinazio-mahaiak eratzeak aukera aztertuko da, emakumeen kontrako indarkeriaren arloko tokiko protokoloen esparruan, emakumeen mutilazio genitalean arreta berezia jarrita. Era berean, lan komunitarioko mahaiak jarriko dira martxan, haur-sareak kontuan

hartuta, EMGa gauzatzeko ohitura duten herritar gehien bizi diren auzo eta udalerrietan, emakumeen mutilazio genitalaren gaian esku hartzen duten erakundeekin eta GKEekin elkarlanean.

Prebentzio- eta sentsibilizazio-neurriei dagokienez, otsailaren 6an arreta berezia jarriko da, Emakumeen Mutilazio Genitalaren Aurkako Nazioarteko Eguna delako.

C. ARRISKUAN DAUDEN NESKAK IDENTIFIKATZEA ETA DETEKTATZEA, ETA ESKU-HARTZE PREBENTIBOA EGITEA FAMILIEKIN.

Banan-banan aztertu beharra dago kasu bakoitzaren arriskua, kontuan hartuta emakumeen mutilazio genitala ez dela Afrikako herrialdeetan soilik gauzatzen, kulturarteko ikuspuntu batetik heldu behar zaiola, eta esku-hartze poliziala eta judiziala azken baliabidea izan behar direla eta ez direla modu erreaktiboan erabili behar (arriskua berehalakoa denean soilik). Horretarako, prestakuntza egokia eta espezializazioa beharko da, eta kultura-bitartekari emakumezkoen laguntza izan beharko da.

Arrisku-adierazleak

- Emakumea izatea, eta emakumeen mutilazio genitala gauzatzeko ohitura izan dezakeen etnia edo herrialde batekoa.
- Familiako beste emakume batek mutilazio genitala pairatu izana.
- Neskatoaren gurasoak eta ingurukoak EMGa gauzatzeko ohitura duen etnia batekoak izatea.


Berehalako arriskua. Arriskua areagotzen duten faktoreak

- Jatorriko herrialdera berehala joateko bidaia antolatzea.

- Neskatoak edo nerabeak jakinarazi izana familiak mutilazio genitala gauzatzeko asmoa duela.
- Neskatoaren edo nerabearen amak, aitak, edo familiako edo inguruko norbaitek jakinaraztea familiak mutilazio genitala gauzatzeko asmoa duela.

Zerbitzu bakar batek ezin dio aurre egin hain konplexua den egoera bati, eta, beraz, ekintza koordinatu eta sistematizatu bat ezarri behar da behar bezalako eraginkortasunez eta arduraz jardun ahal izateko.

1. grafikoa. Arriskuan dauden neskatoak



D. BIZIRIK ATERA DIRENAK DETEKTATZEA ETA HAIEKIN ESKU-HARTZEA EGITEA

Mutilazio genitala emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat da eta, horrenbestez, hartatik bizirik atera direnek 14/2015 Foru Legean ezarritako eskubideak dituzte. Era berean, sexu-indarkeria ere badenez eta hartatik bizirik atera direnez, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko Lege Organikoan ezarritako eskubide batzuk dagozkie.

Eskubide horien artean, laguntza integral espezializatu eta eskuragarriako eskubidea dago, eta funtsezkoa da, arreta fisikoaz gain, laguntza psikologikoa ere izan dezaketela jakinaraztea eta hari hel diezaioketela hala nahi dutenean.

Mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakume batzuek osasun-etxera joaten direnean jakiten dute mutilatuak izan direla, eta zer motatako mutilazioa egin dieten. Horregatik, oso garrantzitsua izanen da sentikortasunez jokatzeko halako informazio delikatuak eman behar zaienean. Emakumeen mutilazio genitala detektatu ondoren, haien eskubideei eta eskura dituzten baliabideei buruzko informazioa emateko, garrantzitsua izanen da kultura-bitartekari emakumezko baten laguntza izatea, aurrez aurre edo, hala badagokio, itzultzaile baten laguntzaz.

Behin emakumeen mutilazio genitala detektatuta, pazientearen historia klinikoan jasoko da, osasun-langileek kontuan izan dezaten, eta biktimak behin eta berriz errepikatu behar izan ez dezan zer gertatu zaion. Era berean, azalduko zaio badagoela genitalak medikoki berregiteko aukera, eta hari eta haren ondorioei buruzko informazioa emanen zaio.

Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroari dagokio mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeak artatzea, hala nahi dutenean. Horregatik, emakumeak baliabide espezializatu horretara bideratuko dira. Bizirik atera diren 16 urte baino gutxiagoko neskek Barnahusen² artatuko dira, eta adin horretarako laguntza psikologiko espezializatua emanen zaie. Osasun Departamentua arduratuko da laguntza klinikoa eta


² Barnahus eta Familia Berrelkartzeko eta Migrazio Doluko Zerbitzua ez daude martxan Protokoloa eguneratzeko unean, eta, beraz, ireki arte, espezializazio egokia duen baliabide batek eman beharko luke arreta.

soziala emateaz. Sexu- eta ugalketa-osasuneko zentroek emanen diete sexu- eta ugalketa-osasuneko laguntza EMGtik bizirik atera direnei.

Baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, mutilazio genitaletik bizirik atera diren emakumeei akreditazioa eman dakieke Nafarroako Gobernuaren baliabide eta zerbitzu publikoetara jotzeko.

Kontuan hartuko da alabarik duten edo beste neskato batzuk dauden familia-ingurunean, eta neskato horiek arriskuan dauden. Informazio hori oinarrizko osasun-laguntzako taldeei jakinaraziko zaie.

2. grafikoa. MUTILAZIO GENITALETIK BIZIRIK ATERA DIREN EMAKUMEAK



E. JARDUKETA KOORDINATUEN ZIRKUITUA

Esku-hartze eremu guztietan kultura-bitartekaritzako jarduerak sartzea gomendatzen da, hau da, sarean lan egitea emakumeen mutilazio genitalaren kasuen prebentzioan eta laguntzan espezializatutako gizarte-erakundeekin.

Jarduketa koordinatuen zirkuituari buruzko informazioa lortzeko, NABira edo Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentrora jo ahal izanen da.

MAILA	EGOERA	HEZKUNTZA	OSASUNA	ARLO SOZIALA
I. MAILA: Arriskua	Arriskuko herrialdeetatik etorritako familiak, sorterrira joateko bidaia antolatzeakoak direnak	Gogorarazi osasunerako zer arrisku dakartzan eta legezko zer ondorio dituen emakumeen genitalen mutilazioak Espainian, eta eman horri buruzko informazioa Jakinarazi oinarritzko osasun-laguntzako taldeei, azterketa medikoa egin dezaten 	Gogorarazi osasunerako zer arrisku dakartzan eta legezko zer ondorio dituen emakumeen genitalen mutilazioak Espainian, eta eman horri buruzko informazioa Jarri hitzordua pediatriako taldeekin, azterketa medikoa egin dezaten Jakinarazi oinarritzko gizarte-zerbitzuei, edo koordinatu haiekin 	Gogorarazi osasunerako zer arrisku dakartzan eta legezko zer ondorio dituen emakumeen genitalen mutilazioak Espainian, eta eman horri buruzko informazioa Esku-hartze prebentiboa egitea familiarekin Jakinarazi oinarritzko osasun-laguntzako taldeei, edo koordinatu haiekin
	Mutilazio genitala gauzatzearen aldekoak direla eta bidaia <u>berehala</u>	Jakinarazi oinarritzko osasun-laguntzako taldeei edo koordinatu haiekin azterketa pediatrikoa		Jakinarazi oinarritzko osasun-laguntzako taldeei edo koordinatu haiekin azterketa pediatrikoa

	egitekoak direla detektatu da	egiteko eta KONPROMISOA sinatzeko →	KONPROMISOA sinatzea Egin azterketa medikoa neskatoari eta hitzordua finkatu bidaiatik bueltatzen denerako ↓	egiteko eta KONPROMISOA sinatzeko ← Konpromisoa bete ez badute, urgentziaz jakinaraziko zaio Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari
--	----------------------------------	--	--	--

MAILA	EGOERA	HEZKUNTZA	OSASUNA	ARLO SOZIALA
II. maila: Erasana	Familiako emakumeren bati EMGa egin diotela detektatu da, eta etxean neskato batzuk daude	Adingabe bati emakumeen mutilazio genitala gauzatu diotela susmatzen bada , jarri harremanetan oinarrizko osasun- laguntzako taldeekin azterketa pediatrikoa egiteko, eta neskatoari mutilazio genitala gauzatu dioten edo ez egiaztatzeke ↓ → Neskatoa EZ bada azaldu medikuarekin duen hitzordura, jarri	Egin azterketa medikoa neskatoari eta baieztatu mutilazio genitala gauzatu diotela ↓ Baieztatzen baldin baduzu adingabe bati mutilazio	


		harremanetan oinarritzko gizarte-zerbitzuekin genitala gauzatu berri diotela, jakinarazi, urgentziaz, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari eta bidali lesio-agiria epaitegira. Horrez gain, bideratu neskatoa Barnahusera, laguntza psikologikoa eman diezaieten Baldin emakume heldua bada, Ginekologia Zerbitzuak esku hartuko du, eta kultura-bitartekari bat arituko da, aurrez aurre, zeina emakumea izanen baita nahitaez edo, bestela ere, itzultzaile emakumezko bat (telematika bidez ere egin daiteke). Zerbitzu horretan, emakumeak izaten ahal dituen ondorioak tratatuko dira eta prebentzio-neurriak ezarriko dituzte familian izan daitezkeen gainerako emakumeei begira. Sartu mutilazio genitala emakumearen historia klinikoa ↓ emakumea Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentrora eta Sexu- eta Ugalketa-osasuneko Zentrora	Mutilazio genitaletik bizirik atera den emakume helduaren kasu bat detektatzean, oinarritzko gizarte-zerbitzuek esku hartuko dute prebentzio neurriak ezartzeko haren familia-ingurune neskatoei begira, eta kasua Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroaren, Ginekologia Zerbitzuaren, eta Sexu- eta Ugalketa-osasuneko Zentroaren esku utziko da. Prozesuan kultura-bitartekari bat izanen da, emakumezkoa nahitaez, aurrez aurre, edo, bestela itzultzaile emakumezko bat.
--	--	---	---


			↓ Eman emakumeen mutilazio genitalaren kasuaren berri oinarrizko osasun-laguntzako taldeei. Emakumeak alabak baldin baditu, ↓ bete I. MAILAKO JARRAIBIDEAK	↓ Jakinarazi oinarrizko osasun-laguntzako taldeei edo koordinatu haiekin, alaba adingabeak babesteko eta prebentzio-neurriak aplikatzeko ← ↓ Baldin Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroak irizten badiote alabak arrisku handian direla, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari jakinarazpena igorriko zaio, urgentziaz.
--	--	--	--	--

EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALAREN MAPA

I. MAILA. ARRISKUA

Jarduketa-algoritmoa, jatorriko herrialderako BIDAIAK direla-eta






EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALAREN MAPA

II. MAILA ERASANA

Emakumeen mutilazio genital KASUETAN jarduteko algoritmoa



F. ARRETA ESPEZIALIZATUA ETA ERREPARAZIOA

Mutilazio genitaletik bizirik atera diren neskato, nerabe eta emakumeek eskubidea dute erreparazio integrala eta arreta espezializatua jasotzeko -. Horiek eman ahal izateko, funtsezkoa izanen da etengabeko prestakuntza interseksionala, kontuan izanen dituen genero-ikuspegia, giza eskubideak, kulturartekotasuna eta neskatoen eskubideak.

Bizirik atera diren 16 urte baino gehiagoko neskak SIAIZan artatuko dituzte. Zuzenean jo ahal izanen dute bertara edo beste baliabide batzuetatik bideratu daitezke hara: GIBOATetatik, Iruñeko Udalaren Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzutik, harrera-baliabideetatik edo Delituen Biktimen Arretarako Bulegotik. 16 urte baino gutxiago dituztenean, Barnahusen artatuko dituzte. Detektatutako eta artatutako emakumeen mutilazio genitalen kasuak erregistratuko dituzte baliabideek, eta informazio hori NABIri helaraziko diote, Datuak atalean xedatutakoarekin bat.

Zenbaitetan, mutilazio genitala berehala gauzatzeko arriskua dagoenean, beharrezkoa izanen da emakume eta neskatoei ostatu ematea. Horrelakoetan, aztertuko da zein den emakume eta neskato bakoitzarentzako ostatu-baliabiderik egokiena, emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako sare publikokoen artetik. Ostatatze segurua urgentziaz behar denean, Larrialdi Zentrora bideratzen ahalko dituzte kasuak Sexu Indarkeriei Areta Integrala emateko Zentroak, genero-indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeek, Delituen Biktimen Arretarako Bulegoak edo Iruñeko Udalaren Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak. Emakumeak harrera-baliabidean dauden bitartean, Larrialdi Zentroko profesionalek gauzatuko dute esku-hartzea, kasua hara bideratu duen baliabidearekin elkarlanean.

Errapazio-lanetarako, erreparaziozko esku-hartzea gauzatuko da, lehen unetik, bizirik atera diren neskato eta emakumeekin. Honako hauek hartuko dira kontuan: emakumeen mutilazio genitalaren zehaztasunak; osasun fisiko, psikologiko, sexual eta

ugalketakorako epe luzera dituen ondorioak, eta emakume edo neskato bakoitzaren premiak eta lehentasunak.

Erreparaziorako eskubideaz kontzientziatzeko, aitortzak, omenaldiak eta zabalkunde publikoko ekintzak gauzatuko dira, zeinetan parte hartuko baitute emakumeen mutilazio genitalaren kasuetan esku hartzen duten eta laguntza ematen duten GKEek eta erakunde sozialek, bai eta emakumeen mutilazio genitaletik bizirik atera direnek ere.

G. BABESA ETA JUSTIZIARAKO SARBIDEA

Emakumeen mutilazio genitaletik bizirik atera direnek babes-neurrietarako eta justiziarako sarbidea izanen dute, kontuan hartuta 18 urtetik beherakoak bereziki zaugarriak direla. Beharrezkoa baldin bada, poliziaren esku-hartzea aktibatuko da, eta biktimak eta bizirik atera direnak babestuko dira (larrialdi eta urgentziatzko egoeretan, SOS Nafarroaren 112 zenbakira deituta). Ezinbestekoa da eragile polizial, juridiko eta judizialei prestakuntza espezializatua ematea emakumeen genitalen mutilazioan, genero-ikuspegitik, interseksionaletik, kulturartekotasunetik eta nesken eskubideetatik, behar bezalako arduraz jarduteko.

16 urtetik aurrerako emakumeei emakumeen mutilazio genitalean espezializatutako laguntza juridikoa eta aholkularitza emanen zaie Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroan. Delituen Biktimen Arretarako Bulegoan, halaber, laguntza espezializatua emanen zaie, eta bulego hori lankidetzan arituko da Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroarekin, kasuaren arabera. Interpretaren beharra izanez gero, hura gaian aditua izanen dela bermatuko da.

Bada, indarrean, emakumeen kontrako indarkeriaren arreta koordinatzeko erakundearteko akordio bat. Haren barruan, eragile polizial, juridiko eta judizial guztiek erregistratuko dituzte detektatzen eta artatzen dituzten emakumeen mutilazio genitalen kasuak, eta informazio hori NABIRA helaraziko dute, bat etorritik datuei buruzko atalean xedatutakoarekin.

H. PRESTAKUNTZA

Emakumeen kontrako indarkeria-mota honen zehaztasunak direla-eta, behar-beharrezkoa da emakumeen mutilazio genitalaren kasuetan esku hartzen duten profesional guztiek prestakuntza espezifikoa eta espezializatua izan dezaten, jarduketa-prozedura egokia izan dadin kasu hauetan.

Emakumeen mutilazio genitalari buruzko prestakuntzak ezaugarri hauek izan behar ditu: genero-ikuspegitik gauzatu behar da, giza eskubideak kontuan izan behar dira, kulturartekoa eta interseksionala izan behar du, eta neskatoen eskubideak zaindu behar ditu. Horrez gain, aukera eman behar du kasu guztiak identifikatzeko, baita erraz ikusten ez direnak ere, eta emakumeen mutilazio genitalaren modu berriak artatu, kontuan izanik Afrikan ez ezik beste kontinente batzuetan ere urratzen direla, hizpide dugun ohituraz, emakumeen eta neskatoen giza eskubideak. Prestakuntzak oinarri sendoa izan behar du eta denboraren joanaz eguneratu beharra dago. Haren edukia prestatu beharra dago emakumeen mutilazio genitalaren arloan eskarmentu egiaztatua duten erakunde espezializatuekin elkarlanean, baita adituekin eta hartatik bizirik atera direnekin ere.

GUTXIENKO EDUKIA	HARTZAILEA
• Oinarri kontzeptuala. Oinarria: genero-ikuspegia, giza eskubideak, kulturartekotasuna, interseksionalitatea eta hauren eskubideak. • Nazioarteko, Estatuko eta Nafarroako lege-esparrua, genero-ikuspegia, giza eskubideak eta interseksionalitatea oinarri hartuta. • Esparru antropologikoa. • Emakumeen mutilazio genitalari heltzeko gako kulturalak.	• NABI • Nafarroako Foru Komunitateko erakunde publikoak (Nafarroako Gobernua, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioa), betiere sinatu badute Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren

• Testuinguruan kokatzea, eta ezeztatzea emakumeen mutilazio genitalaren eta hura gauzatzen den tokiaren inguruko ideiak. • Nabarmentzea ezen emakumeen mutilazio genitala gauzatzen duten komunitateetan, badirela ohitura horren kontra dauden emakumeak eta gizonak, eta haien egitekoa funtsezkoa dela hizpide dugun giza eskubideen aurkako ohitura hori ezabatzeko. • Azpimarratzea kultura-bitartekari emakumezkoek egiten duten lanaren garrantzia. • Azpimarratzea komunitateekin, familiekin, gizonekin eta gazteekin egiten den lanaren garrantzia. • Ezartzea zer printzipiok gidatu behar duten jarduketa oro. • Esku-hartze esparrua zehaztea, barruan direla profesionalen egitekoa eta jarduketan koordinazioa. • Garatzea emakumeen mutilazio genitalaren biktimen eta bizirik atera direnen eskubideak. • Jorratzea ohitura horrek osasun fisikoan, psikologikoan, sexualean eta ugalketakoan dituen ondorioak, bai eta gizartean dituenak ere. • Aztertzea erreparazioa, eta erreparaziorako esku-hartzea.	aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioa. • Emakumeen kontrako indarkeriari heltzeko eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuako Departamentuak. • O-NOZ. • Abokatu-elkargoak, indarkeria-epaitegiak eta adingabeen fiskaltza. • Nafarroako Foru Komunitatean dauden segurtasun kidegoak. • SIAIZ, GIBOAT eta EUAZ. • Barnahus. • Harrera-baliabideak. • Sexu-esplotaziorako eta prostituzio-testuinguruetako pertsona-salerosketatik bizirik atera diren emakumeentzako harrera-baliabideak. • SUOAZak. • DBAB. • Populazio migratzailea artatzeko zerbitzuak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren menpekoak: Oinarrizko Informazio eta Orientazio Zerbitzua (OIOZ), Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzua (AXAZ), Atzerriartasun Gaietarako Aholku Zerbitzua, Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua eta Familia Berriz Elkartzeko eta Migrazio Dolurako Zerbitzua.
---	---

• Nabarmentzea hezkuntza- eta osasun-arloa, eta arlo soziala. • Azaltzea nola jakinarazi behar zaion emakume bati mutilazio genitala pairatu duela. • Aztertzea protokolo hau eta konpromiso prebentibo eguneratua.	• Emakume errefuxiatuekin lan egiten duten profesionalak. • Beste erakunde publiko batzuk, baldin eta emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko, detektatzeko, identifikatzeko, esku-hartzeko eta lagun egiteko eskumenak badituzte, eta arreta espezializatua, erreparazioa, babesa eta justiziarako sarbidea emateko aukera. Horien artean dira haurrak artatzeko baliabide eta zerbitzu espezializatuak.
---	--

7. PROTOKOLOAREN KUDEAKETA

KOORDINAZIO-EGITURAK

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

NABiri honako eginkizun hauek dagozkio:

- Protokoloaren koordinazio orokorra.
- Inplementazioan sor daitezkeen gorabeherak kudeatzea.

- Bi urteko lan-planak egitea protokoloa zehazteko eta eraginkor bihurtzeko asmoz. Elkarlanean egingen ditu plan horiek; zehazki, Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldea osatzen duten erakundeekin eta entitateekin.
- Protokoloaren urteroko jarraipena egitea, bi urteko lan-planak oinarri hartuta, bai eta ebaluazioa ere, sei urtetik behin.
- Emakumeen mutilazio genitalari buruzko prestakuntza espezializatuko planak diseinatzea erakunde eta entitateentzat, baita plan horiek martxan jartzea eta haien jarraipena egitea ere.
- Zentralizatzea Nafarroan biltzen diren emakumeen mutilazio genitalari buruzko datuak, adibidez: sinatutako konpromiso prebentiboen kopurua, jatorrizko herrialdera joan ondotik kontsultara joan direnen kopurua eta gauzatu diren EMGen kopurua. Bada Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioa bat, eta haren jarraipen-txostena egiten da urtero. Bada, aipatutako datu horiek jarraipen-txosten horretan jasoko dira.
- Emakumeen mutilazio genitalari buruzko datuak eta informazio eguneratua biltzea, eta hura sartzea Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren urteko jarraipen-txostenean.

Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioari jarraipena egiteko batzordea.

Honako eginkizun hauek dagozkio analisi eta eztabaidarako kide anitzeko organo horri, non parte hartzen baitute Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean esku hartzen duten erakunde guztiek:

- Landu beharreko lehentasunak identifikatzea, horiek ahalbidetuko baitute protokoloa artikulatzea.

- NABIk prestatuko duen urteko jarraipen-txostena onestea. Txosten hori sartuko da Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren urteko jarraipen-txostenean.
- Protokoloaren esparruan egiten diren bi urteko lan-planak onestea eta horien jarraipena egitea.
- Protokoloaren harira izan daitezkeen gorabeherak kudeatzea.

Nafarroan emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldea

Protokoloa gauzatzeko, Nafarroako emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko talde bat eratuko da. Talde instituzional horretako buru NABI izanen da, eta kideak berriz Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutako eta bestelako erakundeetako ordezkariak izanen dira, zehazki, arlo hauetan eskumenak dituztenak: hezkuntza, osasuna, migrazio-politikak, adingabeak, segurtasuna eta babesa, eta justizia. Talde horretan, gainera, parte hartuko dute SIAIZak, emakumeen aurkako indarkeriaren arreta integralean espezializatutako Nafarroako baliabideek eta Barnahusek. Taldearen parte izanen dira, halaber, emakumeen mutilazio genitalaren kasuetan eta emakume errefuxiatuekin esku hartzen duten eta lagun egiten dieten erakundeetako eta GKEetako ordezkariak.

Taldeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

- Protokoloa gauzatzeko bi urteko lan-planak egitea.
- Protokoloaren edukiak eta haren aplikazioa hobetzeko proposamenak egitea.
- Zeinek bere jardun-eremuan emakumeen mutilazio genitalaren intzidentziari buruzko datuak biltzea, eta jakitea zein izan den emakumeen mutilazio genitalari emandako arretaren bilakaera.

- Laguntza ematea bai NABiri bai eta Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren jarraipena egiteko batzordeari ere, protokoloaren harira suerta litezkeen intzidentziak kudeatzeko orduan.

Talde horretako kideek emakumeen mutilazio genitalari buruzko prestakuntza espezializatua izanen dute.

Talde hori urtean behin bilduko da baina, detektatutako beharrak zein diren, gehiagotan biltzeko aukera aztertuko da.

JARDUKETEN PLANGINTZA

Protokoloaren berri ematea eta hura hedatzea

- Protokoloa, eguneratu eta onetsi ondoren, aurkeztu egingen da, eta zabalduko da emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko ardura duten erakunde eta entitate guztien artean. Aurkezpena egiteko, zenbait hedabide erabiliko dira.
- Protokoloa eta haren emaitzak tarteka hedatuko dira.
- Kontuan hartu behar da protokoloa zer emakumeri zuzentzen zaien, zein den haien hizkuntza, bai eta zer kanal eta zer gune dauden ere haien inguruan informazioa hedatzeko.

Programazioa

Protokolo honetan ezarritakoari erantzuteko, Jarraipen Batzordeak, Nafarroan Emakumeen Mutilazio Genitala Prebenitzeko eta Artatzeko Diziplinariako Taldeak proposatuta, lan-lehentasunak identifikatuko ditu eta bi urtez behingo lan-planean zehaztuko. Protokoloan parte hartzen duten erakunde eta entitate guztiek parte hartu behar dute plan hori prestatzeko prozesuan. Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren jarraipen-batzordeak

plana onetsiko du. Bi urteko lan-planek arlo hauetako jarduketak izanen dituzte sistematikoki: datuenbilketa; prebentzioa; arriskuan dauden neskak detektatzea eta identifikatzea, eta esku-hartze prebentiboa egitea familiekin; bizirik atera direnak detektatzea eta haiekin esku-hartzea egitea; jarduketa koordinatuak; arreta espezializatua, erreparazioa, babesa eta justiziarako sarbidea, eta prestakuntza.

Jarraipena eta ebaluazioa

Bi urteko lan-planetatik abiatuta, jarduketa batzuk abiaraziko dira, eta horien emaitzak urteroko jarraipen-txostenean aurkeztuko dira. Txosten hori NABIk egingen du, eta sartuko da Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren jarraipena egiteko urteko txostenaren barruan.

Protokoloa kanpoan ebaluatuko dute 6 urtetik behin. Ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko indarrean den erakundearteko akordioaren jarraipen batzordeak, NABIk hala proposatuta, protokoloa berrikusiko du, hobetzeko arloak txertatuz.

Aurrekontua eta giza baliabideak

Nafarroako Gobernuako departamentuek beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak esleituko dituzte biurteko lan-planean, beren eskumenekoak diren jarduketak garatzeko.

8. 1. ERANSKINA – Erreferentziazko araudia

Jarraian, erreferentziazko arauak aurkeztuko ditugu, Nafarroakoak, Estatukoak eta nazioartekoak. Horrez gain, emakumeen mutilazio genitalari aurre egiteko egokiak diren akordio, estrategia, ebazpen, helburu, txosten, ohar, itun, plan eta protokolo batzuk ere aipatzen dira, ordena kronologikoan.

A. NAFARROA

LEGEAK

- **13/2023 Foru Legea, apirilaren 5koa, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurka Borrokatzekoa.** Ezartzen du ezen osasunaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartuko dituela, batetik, osasun-zainketak hartzeko orduan arraza edo etniagatiko diskriminazioa desagerrarazteko, eta, bestetik, pertsona arrazializatuen osasun integrala modu positiboan sustatzeko, gainerako herritarren baldintza berberetan (16. artikulua). Adierazten du Nafarroako Gobernuak prestakuntza espezializatua eskainiko diela Foru Komunitateko segurtasun-indar eta -kidego guztiei, eta babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloan lan egiten duten guztiei, honako hauen gainean: etnia- edo arraza-jatorriagatiko arrazakeria eta diskriminazioa, kultura-aniztasunaren polizia-kudeaketa eta emakume arrazializatuen aurkako indarkeria matxista (19.3 artikulua).
- **12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.** Osasun-arloan, prebentzio-neurrien artean, emakumeen mutilazio genitala pairatzeko arriskuan diren neskatoak detektatzeko programa bat ezartzen du (64.3.j artikulua). Arrisku-egoeren eta -adierazleen artean, ablazioa, emakumeen mutilazio genitala edo generoan oinarritutako beste edozein indarkeria-mota pairatzeko arriskua sartzen dira neskatoen eta nerabeen kasuan (81.j artikulua).
- **17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.** Hitzaurrean ezartzen duenez, emakumeen eta gizonen

berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzeko aurrerapauso oro emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko aurrerapena izanen da, eta emakumeen mutilazio genitala da indarkeria horren adierazpen bat, bat etorritz 14/2015 Foru Legean ezarritakoarekin.

- **14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.** Lege horrek emakumeen kontrako indarkeria-motatzat jotzen du emakumeen mutilazio genitala, eta honela definitzen du: “emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa” (3.g artikulua). Hortaz, emakumeen aurkako indarkeria-mota bat denez, lege horren xedapenak aplikatuko zaizkio emakumeen mutilazio genitalari eta hartatik bizirik atera direnei. Xedatzen du ezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jarduera-protokoloak ezarriko dituela emakumeen mutilazio genitalaren kasuak detektatzeko eta artatzeko; eta horretarako, horrelakoetan esku hartzen duten profesionali beharrezkoa den berariazko prestakuntza emanen zaiela.

AKORDIOAK, PLANAK ETA PROTOKOLOAK

- **Nafarroan emakumeen, nerabeen eta neskatoen ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta jarduteko I. protokoloa.** Horiek detektatzeko gakoei buruzko atalean adierazten da badagoela lotura bat ezkontza behartuen, emakumeen mutilazio genitalaren eta neskak gazte direla haurdun geratzearen artean. Adierazten du ezen neskatoen mutilazio genitalak laguntzen duela emakumeak birjinak irits daitezen haien familiek haientzat hitzartzen dituzten ezkontzak ospatzen diren unera. Ezkontza horiek neskatoak oso gazte direla edo 18 urte betetzen dituztenean egiten dira, eta neskak oso gazte direla geratzen dira haurdun (3).
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa (2022-2027).** Emakumeen mutilazio genitalarekin lotutako ekintza batzuk jasotzen ditu, hala nola emakumeen mutilazio genitala detektatzeko eta artatzeko mekanismoak hedatzea eta indartzea (10.1.1 ekintza).

- **Nafarroan Migratzaileei Harrera Egiteko Plana (2021-2026).** Jasotzen dituen neurrien artean dago informazio hobea ematea emakume migratzaileei, emakumeen mutilazio genitaleko kasuetarako artatze- eta berreskuratze-sarean dauden baliabideen eta zerbitzuen katalogari buruz (47. neurria).
- **Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurka Borrokatzeko Nafarroako Plana (2021-2026).** Ezartzen du, batetik, identifikatu eta salatu behar direla osasun-arloan izaten diren jarrera eta ohitura arrazistak, xenofoboak eta diskriminazio interseksionala; bestetik, ez dela diskriminaziorik izan behar osasun-laguntzan eta hartarako sarbidean, eta, azkenik, berrikusi beharra dagoela zer erantzukizun dauden eta zer eragin duten osasun-arloko politikek pertsona arrazializatuen edo etnifikatuen bizitzan, Nafarroan pertsona guztien osasun integrala bermatze aldera.
- **Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakundearteko III. akordioa.** Koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko esparrua ezartzen du, Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta hari modu integralean heltzen dioten erakundeentzat.
- **Emakumeen Kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen ekintza-plana.** Ekintza-planaren xedea da Nafarroako Foru Komunitatean erakundeen erantzuna hobetzea emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, estrategia orokor bat ezarrita emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenei kalitatezko erantzunak emateko eta 14/2015 Foru Legea betetzen dela ziurtatzeko.

B. ESTATUA

LEGEAK

- **1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarrirako Lankidetzarena eta Elkartasun Globalarena.** Haren hitzaurrean adierazten da ezen Espainiak, kooperazioaren arloan, zainduko duela emakumeak, nerabeak eta neskatoak indarkeria mota orotatik babesten direla, bereziki emakumeen mutilazio genitaletik.

- **10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa.** Emakumeen mutilazio genitala sexu-indarkeriatzat jotzen du (3.1 artikulua). Hala, emakumeen mutilazio genitalari aplikatuko zaio alor hauetan xedatutako guztia: datuak ikertzea eta ekoiztea, prebentzioa eta detekzioa, prestakuntza, laguntza integral espezializatua eta eskuragarria izateko eskubidea, segurtasun-indar eta -kidegoen jarduketa, justiziarako sarbidea eta justizia izatea, eta erreparaziorako eskubidea. Xedatzen du, halaber, neurri eta kanpaina batzuk ezarriko direla emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko, hari buruz kontzientziatzeko eta salaketak sustatzeko. Horren harira, aldebiko eta alde anitzeko akordioak sinatuko dira, erakunde nazionalak eta nazioartekoak elkarlanean aritu daitezen eta informazioa truka dezaten, emakumeen mutilazio genitalaren kontra egiteko, garapenerako nazioarteko kooperazioaren esparruan (13.3 artikulua). Adierazten da, era berean, botere publikoek jarduketa-protokolo batzuk ezarriko dituztela emakumeen mutilazio genitalaren kasuak detektatzeko eta artatzeko. Horretarako, espezializatzeko beharrezkoa duten prestakuntza espezifikoak emanen zaie profesionalei eta, horren barruan, aukera egonen da garapenerako nazioarteko kooperazioaren esparruan ekintza espezifikoak gauzatzeko (22. artikulua).
- **8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena.** Haren xedea da hurrek eta nerabeek beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralerako dituzten oinarritzko eskubideak bermatzea, edozein indarkeria-motaren aurrean, baita emakumeen mutilazio genitalaren kasuan ere, eta haien nortasunaren garapen askea bermatzea, babes integraleko neurriak ezarrita, barnean hartuta sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen erreparazioa beren bizitzak garatzen diren eremu guztietan (1. artikulua). Ezartzen du administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen esparruan, sustatuko eta bermatuko dutela ezen adingabeekin kontaktua izan ohi duten profesionalek prestakuntza espezializatua, hasierakoa eta jarraitua izanen dutela haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideei buruz. Horrez gain, lege organiko horretan prestakuntza horren gutxieneko edukiak ezarri dira, eta horien artean da indarkeria-mota guztiak, emakumeen mutilazio genitala tarteko, prebenitzea eta goiz detektatzea (5.1 artikulua). Ezartzen du zer eskubide dituzten neskatoek indarkeriaren

aurrean, emakumeen mutilazio genitala barne (I. titulua); hor, beste eskubide batzuen artean, arreta integralerako eskubidea jaso da. Adierazten da, halaber, haurren eta nerabeen gaineko indarkeria —emakumeen mutilazio genitala tarteko— ezabatzeko prebentzio-programak eta -planak ezarriko direla (23. artikulua). Jarduketa-protokoloak garatzea xedatzen du (34. artikulua). Ezartzen duenez, ikasle adingabeak dituzten ikastetxe guztiek, berdin dio horien titularra nor den, ikasleen ongizaterako eta babeserako koordinatzailea izan beharko dute, zeinak eginkizun batzuk izanen baititu indarkeria-kasuetan (35. artikulua).

- **4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzkoa.** Delituen biktimen eskubideei heltzen die.
- **12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, Asilo Eskubidea eta Babes Subsidiarioa Arautzen dituen.** Errefuxiatu izaeraren baitan, jazarriak izateko beldur oinarrituna izateko arrazoiaren artean, generoa dago jasota (3. artikulua). Jazarpen-ekintzen artean sexu-indarkeriazko egintzak daude (6. artikulua). Jazarpen-arrazoiak baloratzean kontuan hartuko diren elementuen artean ezarri da ezen, jatorrizko herrialdean nagusi diren inguruabarrak kontuan izanik, errefuxiatutzat hartuko direla genero- edo adin-arrazoiengatik jazarriko dituzten beldur funtsatuak izateagatik jatorrizko herrialdeetatik ihes egin duten pertsonak; baina ez da aplikatuko arrazoi horiek soilik tarteko direnean (7. artikulua). Aipatzen du, era berean, kontuan hartuko dela zein den zaurgarritasun-egoera izan eta nazioarteko babesa eskatzen duten edo haren onuradun izan daitezkeen pertsonen egoera espezifikoa, eta egoera horien artean sartzen dira sexu-indarkeriaren mota larriak (46.1 artikulua).
- **2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.** Espainiako hezkuntza-sistemaren printzipioetako bat da honako balio hauek zaintzea: bizikidetzatza, errespetua, gatazken prebentzioa, gatazkek modu baketsuan konpontzea, eta indarkeriarik ez izatea bizitza pertsonalaren, familiarren eta sozialaren eremu guztietan, eskola-jazarpenarena eta ziberjazarpenarena barne. Balio horiek oinarri dituen hezkuntzaren helburua da ikasleek jakin dezatela hautematen zer diren tratatu txarrak, sexu-abusua, indarkeria edo diskriminazioa, eta jakin dezatela horien aurrean

erreakzionatzen. Lege organiko horrek zehazten du, era berean, hezkuntza-sistemak xede duela betebeharren eta aukeren berdintasuna garatzea; aniztasun afektibo-sexuala eta familia aniztasuna errespetatzea; emakume eta gizonen benetako berdintasuna sustatzea neska-mutilen hezkidetza-araubidea aintzakotzat hartuta; hezkuntza afektibo-sexuala, heldutasun mailari egokitua; genero-indarkeriaren prebentzioa; eta espiritu kritikoa eta herritartasun aktiboa sustatzea (1. artikuluko k eta l letrak).

- **1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk aldatzekoa.** Arrisku-adierazleetako bat da ablazioa, emakumeen mutilazio genitala edo generoan oinarritutako beste edozein indarkeria-mota pairatzeko arriskua, neskatoen eta nerabeen kasuan (17.2.g artikulua).
- **10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.** Ezartzen du ezen beste norbaiti mutilazio genitala gauzatu dionari, berdin dio zer motatako mutilazio genitala den, sei urtetik 12 urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaiola. Baldin biktima adingabea bada edo desgaitasuna izan eta babes berezia behar badu, desgaitasun-zigor berezia aplikatuko zaio honako hauek egikaritzeko: guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera —lau urtetik 10 urte arte— baldin epaileak egokitzen jotzen badu adingabearen edo desgaitasuna izan eta babes berezia behar duen pertsonaren intereserako (149.2 artikulua). Xedatzen du, halaber, emakumeen mutilazio genitalaren delituetan, honako eginbehar eta betebeharrak hauek ezarriko direla: debeku izanen dute biktimaengana edo epaileak edo auzitegiak zehazten duen senideengana edo bestelako pertsonengana gerturatzea, ezin izanen dute gerturatu ez haien etxeetara, ez lantokietara ez eta izan ohi diren beste toki batzuetara ere, eta ezin izanen dute haiekin harremanetan jarri ezein baliabidetatik. Debeku izanen dute, halaber, toki zehatz batean bizitzea edo toki horretara joatea baldin eta horietan izan badezakete berriz ere delituak gauzatzeko aukera edo arrazoirik. Azkenik, nahitaez parte hartu beharko dute prestakuntza-programetan, lan-programetan, programa kulturaletan, bide-segurtasuneko hezkuntzakoetan, sexu-hezkuntzakoetan, ingurumena babestekoetan, animaliak babesteko programetan, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoetan, gatazkak modu baketsuan konpontzeari buruzko

programetan, gurasotasun positiboa lantzeko programetan eta antzeko beste batzuetan (83.2 artikulua).

- **6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa.** Xedatzen du Espainiako jurisdikzioa eskuduna izanen dela pertsona espainiarrek edo atzerritarrek lurralde nazionaletik kanpo gauzatutako egitatez arduratzeko, adierazitako baldintzak betetzen direnean eta, Espainiako legearen arabera, egintza horiek era honetako delitutzat jotzen direnean: Istanbulgo Hitzarmenak araututako delituak, baldin eta prozedura espainiar baten aurkakoa bada, prozedura Espainian bizi ohi den atzerritar baten aurkakoa bada, edo, egintzak gauzatu diren unean, delituaren biktimak Espainiako nazionalitatea badu edo ohiko bizilekua Espainian badu, hori guztia baldin eta delitu-egitatea egozten zaion pertsona Espainian badago (23.4.l artikulua).

ESTRATEGIAK, PLANAK, ITUNAK ETA PROTOKOLOAK

- **Haurren Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estrategia (2023-2030).** Haurrek eskubidea dute indarkeriarik gabeko bizitza izateko, beren ahal guztia garatzeko aukera izateko eta haurtzaroan zoriontsu izateko. Estrategia horren helburua da, beraz, haurren eskubide horiek betetzen direla bermatzea. Indarkeria-moten artean, emakumeen mutilazio genitala aipatzen da.
- **Haurren eta Nerabeen Eskubideen Estatuko Estrategia (2023-2030).** Ezartzen du emakumeen mutilazio genitala haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-mota bat dela, bereziki neskatoen eta emakume nerabeen aurkakoa.
- **Giza Eskubideen II. Plan Nazionala (2023-2027).** Genero-indarkeriaren arreta- eta prebentzio-neurriak biktima guztiei hedatzeko konpromisoa ezartzen du, beste indarkeria-mota batzuk barne, hala nola emakumeen mutilazio genitala (285. neurria).
- **Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko urte anitzeko plan bateratua (2023-2027).** Baterako jarduketa-esparru bat da, helburu duena Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Itunetik eratorritako politika publikoen eta zerbitzuen egonkortasuna

eta irautea bermatzea. Planaren barruan bada emakumeen aurkako indarkeriaren arloko politiken eta zerbitzuen erreferentziazko katalogo bat, bai eta informazio- eta ebaluazio-sistema komun bat ere. Katalogoaren barruan sartzen da autonomia-erkidego mailan protokoloak edo beste mekanismo espezifiko batzuk sustatzea, detektatzeko eta laguntza, babesa eta justiziarako sarbidea emateko honako hauei: sexu-esplotaziorako gizakien salerosketako biktimei; prostituzio-testuinguruetan sexu-esplotazio arriskuan diren emakumeei; emakumeen mutilazio genitalaren biktimei, eta ezkontza behartuen biktimei. Protokolo horietan, gai honetan eskumena duten administrazioen arteko koordinazioa zertan datzan zehaztuko da.

- **Indarkeria Matxistei Aurre Egiteko Estatuko Estrategia (2022-2025).** Politika publikoen eremuko jarduerak planifikatzeko eta antolatzekeo tresna bat da, helburu duena irmotasunez laguntzea emakumeen kontrako indarkeriak prebenitzen, detektatzen, desagerrarazten eta erreparatzen, hori guztia begirada zabaltzea eta epe labur, ertain eta luzera emaitza eraginkorrak lortzea eskatzen duen agertoki batean. Emakumeen mutilazio genitala sexu-indarkeriatzat hartzen du, eta sexu-indarkeria, aldiz, indarkeria matxistatzat.
- **Genero Indarkeriaren Kontrako Estatu Ituna (2017koa, 2025ean berritua).** Hainbat neurri jasotzen ditu emakumeen kontrako indarkeria-motak ikusarazteko eta artatzeko, emakumeen mutilazio genitala barne.
- **Emakumeen mutilazio genitalari aurre egiteko osasun-arloko jarduketa-protokolo komuna (2015).** Tresna bat da, profesionalak emakumeen mutilazio genitalaren kontrako borrokari buruz sentsibilizatzeko eta prestatzeko, eta Osasun Sistema Nazional osoan jarduketa homogeneoak bideratzeko, aukera emanen dutenak EMGaren biktima diren edo EMGtik bizirik atera diren emakumeen eta neskatoen osasuna hobetzeko, bai eta lan egiteko EMGa prebenitzen eta haren arriskua detektatzen, neskatoak edo emakumeak, beren familia-testuingurua dela-eta, zaurgarritasun-egoera berezian daudenean.

C. NAZIOARTEA

NAZIO BATUAK

TRESNAK

- **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989).** Tresna garrantzitsua da neskatoen eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko. Lau printzipiotan oinarritzen da: diskriminaziorik eza; neskatoen interes gorena, lehentasunez kontuan hartu beharrekoa; bizitzeko, bizirik ateratzeko eta garatzeko eskubidea, bai eta entzunak izateko eskubidea ere. Indarkeriaren aurkako babesa eta osasunerako eskubidea barne hartzen ditu (19. eta 24. artikulua).
- **Emakumearen Kontrako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari Buruzko Konbentzioa (1979).** Emakumeen eta neskatoen giza eskubideetarako funtsezko tresna da. Emakumeen aurkako diskriminazioa debekatzen du eta berdintasuna lortze aldera estatuek dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren gaiari ere heltzen dio; izan ere, Batzordeak (Emakumearen Aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordea) 12., 19. eta 35. gomendio orokorretan adierazi duenez, emakumeen kontrako indarkeria diskriminazio-modu bat da.

BESTE BATZUK

- **Unicefen informazio eguneratua (2024): Emakumeen mutilazio genitala, kezka global gisa.** Munduan 230 milioi neska eta emakume inguruk pairatu dute emakumeen mutilazio genitala, eta 4 milioi neska inguruk jasaten dute urtero. Txosten horren arabera, Asian 80 milioi emakumek pairatu dute mutilazio genitala; Ekialde Hurbilean 6 milioi, eta 1 eta 2 milioi, beste herrialde batzuetan, zeinetan EMGa gauzatzeko ohitura duten komunitate txikiak edo diasporako herritarrak bizi baitira. Txostenean jasota dago, halaber, herrialde batzuetan neskatoak oso-oso txikiak direnean gauzatzen dietela mutilazio genitala, eta beste herrialde batzuetan, aldiz, nerabezaroan. Aipatzen da, halaber, ohitura hori duten komunitateetan, emakumeen eta gizonen ehuneko handi bat ohitura hori ezabatzearen alde dagoela.
- **Txostena, idazkari nagusiarena, emakumeen mutilazio genitala ezabatzeko mundu mailako ahaleginak areagotzeari buruzkoa (2024).** Mundu mailako azken

datuak eta joerak jasotzen ditu, joera politiko eta juridikoak; emakumeen mutilazio genitala medikalizatzearen gaiari heltzen dio, baita emakumeen mugaz gaindiko eta nazioz gaindiko mutilazio genitalari ere; hartutako neurri batzuk jorratzen ditu eta ondorio eta gomendio batzuk garatzen.

- **Azken oharra, Emakumearen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordearen Espainiako bederatzigarren aldizkako txostenari buruz, 2023.** Ebaluatzen du Espainiako Estatuak betetzen duen edo ez “Emakumearen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzeari buruzko konbentzioa”. Horretarako, erreferentziatzat hartzen du Espainiaren bederatzigarren aldizkako txostena, eta gomendio batzuk egiten ditu bai emakumeen mutilazio genitalari buruz (esaterako, beharrezkoak diren neurriak har daitezela emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta zuzentzeko), bai emakume migratzaileen eskubideei buruz, bai eta ikuspegi intersektzionala txertatzeari buruz ere.
- **77/195 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiarena (2022).** Berresten du emakumeen mutilazio genitala ohitura kaltegarri bat dela, emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria-ekintza bat dela eta giza eskubideez baliatzea galarazten diela. Berresten du, halaber, ohitura horrek modu larrian mehatxatzen dituela emakumeen eta neskatoen duintasuna, ongizatea eta osasun fisikoa, mentala, sexuala eta ugalketakoa.
- **35. Gomendio Orokorra, genero-arrazoiengatik emakumeen kontra gauzatutako indarkeriari buruzkoa (2017). Gomendio horren bidez, Emakumearen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordearen 19. Gomendio Orokorra eguneratzen da.** 19. gomendioa osatzen eta eguneratzen du, eta berriro dio genero-arrazoiengatik indarkeria emakumearen aurkako diskriminazio-mota bat dela, emakume izateagatik emakumeen kontra gauzatutako indarkeria edo emakumeei neurritz kanpo eragiten diena, eta haien giza eskubideak urratzen dituela.
- **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (2015).** 5. helburua: Generoen berdintasuna lortzea eta emakumeak ahalduntzea. 5. helburuko 3. xedean emakumeen mutilazio genitala ezabatzea jaso da.

- **Osasunaren Mundu Erakundea, Emakumeen mutilazio genitalarengatik osasun-arazoak kudeatzeko gida (2016).** Emakumeen mutilazio genitaletik (edozein motatakoa) bizirik atera diren neskatoak eta emakumeak artatzen dituzten osasun-profesionalentzako jarraibideak.
- **31. Gomendio Orokorra, CEDAW Batzordearena, eta 18. Ohar Orokorra, Haurren Eskubideen Batzordearena, ohitura kaltegarriei buruzkoa (batera onetsiak 2014an).** Emakumeen mutilazio genitalari aurre egiten dio, ohitura kaltegarria den aldetik, eta ohitura kaltegarriei aurre egiteko esparru orokorra ezartzen du (datuak, ikuskapena, legeria eta hura betetzea, prebentzioa, kautelazko neurriak eta erantzun-zerbitzuak).
- **Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena (1993).** Emakumeen aurkako indarkeria-mota edo --adierazpen guztiak tratatzen ditu — emakumeen mutilazio genitala, horien artean—, eta estatuen betebeharrak ezartzen ditu.

EUROPAKO KONTSEILUA

HITZARMENA

- **Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien kontra borrokatzeari buruzkoa (2011).** Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko Europako tresna garrantzitsua da. Emakumeen mutilazio genitala jotzen du emakumeen aurkako indarkeriatzat, giza eskubideak urratzen baititu, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako oztopo bat baita. Horrela, hitzarmen horretan xedatutako guztia aplikatu dakieke emakumeen mutilazio genitalari eta hartatik bizirik atera diren emakumeei. Ezartzen du legegintza-neurriak edo bestelakoak hartuko direla emakumeen mutilazio genitala delitu gisa tipifikatzeko (38. artikulua).

BESTE BATZUK

- **Espainiari buruzko gaikako ebaluazio-txostena: “Konfiantza sortzea, laguntza, babesa eta justizia eskainita” (2024) eta Espainiari buruzko ebaluazio-txostena, Istanbulgo Hitzarmenaren xedapenak betearazteko legegintza-neurriei eta bestelakoei buruz (2020), biak ere emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzeko adituek eginak.** Bi txosten horietan hartzen da kontuan emakumeen mutilazio genitala, eta horri buruzko gomendio batzuk ematen dituzte Espainiako Estaturako. Horrez gain, emakume migratzaileen gaiari heltzen diote, eta aipatzen dute praktikan ikuspuntu intersektionala txertatzea beharrezkoa dela.

EUROPAR BATASUNA

ZUZENTARAUAK

- **2024/1385 (EB) Zuzentaraua, 2024ko maiatzaren 14koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari buruzkoa.** Emakumeen kontrako indarkeriaren gaiari heltzen dio, emakumeen mutilazio genitala barne. Xedatzen du estatuek bermatuko dutela emakumeen mutilazio genitala delitu gisa zigortzea (3. artikulua). Xedatzen du estatuek laguntza eraginkorra eta egokia bermatuko dietela emakumeen mutilazio genitalaren biktimei, adinaren arabera eta erraz eskuratzeko moduan; emanen diete, batetik, arreta ginekologikoa, sexologikoa, psikologikoa eta trauma-ostekoa, eta, bestetik, aholkularitza pertsonalizatua, biktima horien premia bereziak kontuan hartuta, delitua gauzatu ondoren eta ordutik aurrera beharrezkoa den denbora guztian. Laguntza horren barruan, informazioa emanen zaie genitalak eta klitoria berreraikitzeke kirurgia gauzatzen duten ospitale publikoetako unitateei buruz (27. artikulua). Ezartzen du, halaber, prebentzio-neurriek emakumeen mutilazio genitalari buruzko kontzientziazioa garatu edo areagotu beharko dutela, kontuan hartuta zenbat lagunek pairatu duten EMGa edo zenbat lagun dauden hura pairatzeko arriskuan Europar Batasuneko kasuan kasuko estatuan (34.7 artikulua). Profesionalentzako prestakuntzari eta informazioari dagokionez, adierazten du osasun-arloko profesional egokiek, bereziki pediatrek, ginekologoek, obstetrek, emaginek eta laguntza psikologikoko zerbitzuetako osasun-langileek, prestakuntza espezifikoa

jasoko dutela emakumeen mutilazio genitalaren ondorio fisikoak, psikologikoak eta sexualak detektatzeko eta jorratzeko, alderdi kulturalak kontuan hartuta (36.5 artikulua).

- **2012/29/EB Zuzentaraua, Delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen duena.** Haren helburua da bermatzea delituen biktimek informazio, laguntza eta babes egokiak jasoko dituztela, eta prozesu penaletan parte hartzeko aukera izanen dutela. Xedatzen du estatuek zainduko dutela biktimei biktima izaera aitortzen zaiela, eta biktimak errespetuz, sentikortasunez, banaka, profesionaltasunez eta diskriminaziorik gabe tratatuko dituztela harremanetan direnean bai biktimei laguntzeko zerbitzuekin edo justizia errestitutiboko zerbitzuekin, bai eta zigor-arloko prozedura baten testuinguruan jarduten duen edozein agintaritzaren eskudunekin ere. Zainduko dute, era berean, zuzentzarau honetan ezarritako eskubideak diskriminaziorik gabe aplikatuko zaizkiela biktimei, baita egoitza-estatutuari dagokionez ere (1. artikulua). Xedatzen du ezen, biktima adingabea denean, estatuek zainduko dutela zuzentzarau hau aplikatzean adingabearen interes gorena lehenetsiko eta interes hori banaka ebaluatuko dela. Era berean, planteamendua prestatzean kontuan izanen da biktima adingabea dela, kontuan izanen da adingabeak zenbat urte dituen, zein den haren heldutasun-maila eta iritzia, eta zein diren haren beharrak eta kezak. Adierazten du, halaber, adingabeari eta, halakorik izanez gero, legezko haren ordezkariari informazioa emanen zaiela adingabea erdigunean duten eskubide edo neurri guztiei buruz (1. artikulua).

9. 2. ERANSKINA - KONPROMISO PREBENTIBOA

Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko konpromisoa

<Beste hizkuntza batzuetara itzuliko da>

Osasun-etxea:

Neskatoaren izena:

Jaioteguna:

Bidaia zer datatan izanen den:

Neskatoa zer herrialdetara joanen den:

Honako hauek jakinarazi zaizkie:

- Herrialde batzuetan ohikoak diren sexu-organoen mutilazio erritualetan zer arrisku soziosanitario eta psikologiko dakartzaten, eta ebakuntza horiek giza eskubideak urratzen dituztela.
- Zein den emakumeen mutilazioari buruzko legedia Espainian: jardunbide hori lesio-delitua da Zigor Kodearen 149.2 artikularen arabera, baita ebakuntza Espainiatik kanpo egin denean ere, 3/2005 BJLOaren aldaketari jarraikiz.
- Gurasoei 6tik 12 urtera bitarteko espetze-zigorra ezarriko zaiela, guraso ahala kenduko zaiela eta neskatoa adingabeak babesteko zentroren batean sartzeko erabakia etor daitekeela.
- Konpromisoa hartuko dutela neskatoa, bidaiatik itzultzean, bere osasun-etxeko pediatararengana joateko, osasun-azterketa bat egin diezaion Haurren Osasun Programaren barruan.

- Oso garrantzitsua dela osasun-zerbitzuetako profesionalek bidaiari begira aholkatu dizkieten prebentzio guztiak hartzea.
- Pediatrak/Medikuak egiaztatzen du ezen neskatoari orain arte egindako osasun-azterketetan ez dela hauteman genitalen osotasunari dagokion alteraziorik.

Horregatik guztiagatik:

- **ADIERAZTEN DUT** ezen neskatoaren osasunaz arduratzen den osasun arloko profesionalak arestian zehaztutako alderdi horiek guztiak jakinarazi dizkidala emakumeen mutilazio genitalari buruz.
- **USTE DUT** ulertu ditudala azalpenen xedea, garrantzia eta zein diren ondorio legalak.
- **KONPROMISOA HARTZEN DUT** nire ardurapeko adingabearen/adingabeen osasuna zaintzeko eta haren/haien mutilazio genitala galarazteko, baita bidaia ondoko osasun-azterketara ekartzeko ere.

Eta jasota gera dadin, konpromiso honen jatorrizkoa irakurri eta bi ale sinatzen ditut, baita kopia bat gorde ere.

Sinadura. Pediatra/Medikua

Sinadura. Neskatoaren aita/ama/arduraduna

NANa/AIZa/Pasaportea

Tokia eta data